ALBERTO BARANDIARAN

Mundu txikia

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2005 Alberto Barandiaran
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2005eko maiatza
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

JULIA

Zigarroa piztu duenean, orduantxe agertu da zerbitzaria. Keinu horren zain egon izan balitz bezala.

– Ebakia.

Kristalaz bestaldera, zabuetan ari dira haurrak. Prakak bustiko zaizkie, pentsatu du Juliak. Baina ez du errieta egiteko gogorik.

Kafea txepel dago. Utzi du kikara platertxoaren gainean. Inguru honetako ostatuek, pentsatu du, usain bera dute denek. Pareta horikara zikinetan itsatsita, halako patina. Bataioak, ezkontzak, farias latzak, xanpain merkea, dena dago pareta hauetan. Hemen dago argazkia, hemen daude iji-aja eta aiene guztiak.

Eta pentsatu du bera bakarrik dagoela. Eta kamareroa mahaiak prestatzen ari dela larunbata delako, afariak izango dituztelako. Eta berak zer egiten duen hor, bakarrik bere soineko arrosarekin, kanpoan haurrak elkarrekin haserretzen diren bitartean.

Zigarroari zupada eman eta txarraldia sartu zaio. Errepide bihurria madarikatu du berriro. Baina beste zupada bat eman dio hala ere. Soineko arrosak zigarroa eskatzen duela uste du. Bizitza hurrengo soinekoa dela iruditzen zaio batzuetan.

Eusebio abiatu denean, betiko ezinegonak menderatu du. Ostatutik ateratzen den errepide meharrean gora ikusi du autoa, gurpilen arrastoa breatu bustian, eta lehen bihurgunean desagertutakoan gogoratu da aitarekin, fabrikatik etorri eta bere hanken gainean eserarazten zuenean. «Hau da nire printzesa!, munduan parerik ez duena!».

Ondoko mahaiak txukuntzen ari dira.

Poltsa arrosatik lapitza atera eta ezpainak apaintzen hasi da ispilu txikian. Beste zupada bat eman dio zigarroari.

Errepideraino erortzen diren mendi mazelak oihan basa dira, sasi itxiak eta zuhaixka moldatu

gabeak. Behelainoak ezkutatuta dauzka. Kristala eskuz garbitu eta hotzikara lepotik irristatzen sentitu du Juliak. Errepidean auto bat ikusten du aldian behin. Argiei jarraitzen die begiradarekin, errebueltatik agertzen direnetik errebueltan desagertzen diren arte.

Hiru irudi txiki kulunkan ari dira. Ez du atertzeko itxurarik. Tabernako miradoretik hona, Juliak puntuzko txaketa bildu du bizkar gainean.

Eusebio iritsi denean, kikaran bi euli daude azukre hondarretan milika.

Koñaka eskatu du gizonak.

– Jose Marik eskumuinak eman dizkit, Felisaren partetik.

Hurrengoan Jose Mariren andrea etorriko dela esan dio, eta horrela elkarrekin kafea hartuko dutela, eta hitz egin ahal izango dutela, haurrak jolasten diren bitartean.

Ezin du botagura ahaztu. Esan dionean, ez ote den haurdun egongo galdetu dio Eusebiok. Ez

ote den berriro egongo. Gizon honengan zer ikusi zuen galdetu dio Juliak bere buruari. Zer, honengan. Zergatik bera. Askotan galdetu dio hori bere buruari.

– Atera ezan zientotres.

– Julia, mugi hadi!, mahaiak prestatu behar ditinagu!

Beti noka bortitz hori.

Ahizpak bazekien taberna zuloa traidorea zela. Gizonak harropuztu egiten zirela. Horrelaxe esan zion ahizpa txikiari:

– Gizonak harrotu egiten ditun hemen, Julia. Direnak baino halako bi gehiago agertzen ditun barra inguruan.

Marik mahaiak zerbitzatzen zituen.

– Mari, zer dugu afaltzeko?

– Ondo dakizu. Beti galdetzen didazu gauza bera.

– Zurekin hitz egiteko. Bestela ez didazu kasurik egiten.

– Ergela.

Juliak barre txikiak egiten zituen barraren atzean, eta berari ere inoiz «Julia, politte, non eseriko gara gaur?» galdetuko ziotela pentsatzen zuen, eta berak ez entzunarena egingo zuela Marik bezala, zertarako eta berriro galdera bera entzuteko, beste ezertarako ez. Entzuteko «Julia, flana zuk egin duzu?, orduan bi hartuko ditut»; edo «Tartaren krema baino gozoagoak diruditen ezpain horiek probatzen utziko bazenit».

– Julia, mugi hadi, neska! Ekartzan bi botila ardo! Eta sifoia!

– Whiskia, Julia.

Hori ere izan zen. Soilik bera eta bere koadrilakoendako gordetzen zuten botila horia nola eskatzen zuen. Nola edaten zuen trago txikitan, benetan gustatuko balitzaio bezala.

Eta esku txuriak izan ziren. Eta bulegoko jantzia, gorbata eta guzti. Begiratzeko modua ere bazen. Lagunekin Bartali eta Coppiren gainean nola hitz egiten zuen. Nola kontatzen zuen Giroko etapa, Il Campionissimok aurkariari bidoia eskaini zionekoa erasoa jo baino lehentxeago

–«hartu Gino, hartu dena, eta edan ezak, edan ase arte»–. Etapa guztietako emaitzak kaiera txikian erakusten zituen, arkatzez hartutako oharrez. Eta entzun egiten zioten besteek.

– Eusebio, aurtengo Giroan zer?

Monje hegalaria aipatzen zuen berak. Eta River Plateko jokalari hura, Di Stefano bera aulkian utziko zuena.

– Atera whiskia, Julia –esaten zion.

Nokarik ez.

Eta nola orrazten zen, atzeraka. Nola eskatzen zion kafesnea arratsaldero, bazkalostean ostatura hurbiltzen zen bakoitzean. Nola egiten zion klik ezkerreko begiarekin.

Bihotza zartatu zion neguko igande batez. Kalean euria bota ahala, ostatuan kopak beteta.

– Mari hori emakume ederra duk. Andre-andrea.

Eusebio barran zen lagunekin.

– Horrek aukeratua dik gizona, Eusebio; ez daukak zereginik.

Juliak dena entzuten zuen edalontziak garbitzen.

– Bera ez bada, txikia izango duk. Igoal-igoalak dituk biak. Bata ez bada bestea, aditzen? Niretako izango duk, bata ez bada, bestea!

Eta kopa hustu zuen trago batez, besteen barre algaren artean.

Juliak hitz eman zuen ez ziola utziko harroputz horri, bera ez zela bigarrena izango.

Whiskia eskatzen zion arratsaldero, bazkalostean kafea hartzera hurbiltzen zenean, edo koñaka. Eta nokarik ez. Eta ezker begiaz klik.

– Utziko didazu etxera laguntzen? –esan zion behin batean.

– ...Eta horrela ez zara aspertuko.

Ezin du koñaka jasan. Osaba ostatuan sartzen zeneko pattar fuertearen usaina ekartzen dio gogora. Musu hezeak –«emadan muxu, politte!»– eta azala lija bezalakoa. «Emadan muxu!».

– ...horrela elkarrekin hitz egin ahal izango duzue.

Eusebio autora abiatu da ezer galdetu gabe. Juliak haurrei hots egin die. Prakak bustita dituzte.

Badaki berak eskatu diola. «Eusebio, hurrena zurekin joango gara, eta kafea elkarrekin hartuko dugu bidean».

Autoan sartu direnean, ostatuko neskak inbidiaz begiratu dio Juliari.

Honek beti pentsatu du Eusebio tratante ona izango zela. Feria egunetan ostatua betetzen zuten valentziarrekin ondo moldatuko zela. Senarra, ordea, lagunen artean harrotzen zen, bera «beste klase batekoa» zela esanez, kafesnea eta whiskia egunero eskatzen zituelako.

Juliak ez daki nola ezkutatu, are gutxiago liberak. Poltsa arrosarekin fardel txikia estutzen ari da gonapean.

– ¿Algo para declarar? –guardia zibilak.

Eta muga gaindituta, haurrek, ea zergatik eztabaidatzen duten horrela. Zer gertatu den. Eusebiok «Isiltzeko!» oihu egin die. Eta isildu egin dira.

Askotan Julia eta haurrak ez dira ia jaitsi ere egiten. Errepide bazterreko ostatu parera iritsitakoan, txiza egitera aterarazten ditu umeak. Musua garbitzen die poltsan beti eramaten duen belakiarekin. Izekok gauza bera egiten zion berari. Eta bera beti haserretzen zen gisa berean, haurrak ere beti haserretuko dira tema horrekin. Baina Juliak zikin ikusten ditu beti musu gorriak.

Autoren bat igarotzen da noizean behin. Kamioi bat edo beste ere bai. Amak ipuinak kontatzen dizkie bitartean.

– Ez dakit zertarako ekartzen gaituzun.

– Zuk esan zenuen-eta etorri nahi zenuela! Tira, horrela garbiago da dena.

– Horrexegatik: ez dakit zergatik ekartzen gaituzun.

Eta hor bukatzen da hizketaldia. Juliak badaki noiz bukatzen den hizketaldia, Eusebiok tratanteen begirada hori jartzen duenean.

Ostatu atzeko bideko lehen errebueltan auto bat agertu da astiro. Malda erdian gelditu da. Juliak isiltzeko esan die haurrei. Argiak piztu-itzali egin dira bi aldiz, eta Eusebio autotik irten eta etorri berriarengana abiatu da oinez, ezer esan gabe.

Otsoarengandik babesteko etxeak egin behar izan zituzten hiru txerritxoen ipuina kontatzen hasi da Julia, eta eskailera ilunetik mehatxuka igotzen zen mamuarena. Bi eta hiru bider kontatu behar izaten ditu. Beti berdin.

– Kontatu txikia zinenekoa, ama!

Haurrak konturatu gabe, Juliak bi gizonen siluetei begiratzen die tarteka. Arratseko argi apalarekin asmatu behar du, baina auto handiaren aurreko eserlekuetan keinuka ari direla iruditu zaio.

Badaki herrian geratu diren ahizpek baino zorte hobea izan duela. Batzuetan pentsatze hutsak animatu egiten du. Oroitzen da hirira iritsi zirenekoa, Eusebioren leku aldaketa zela-eta. Taxia-

ren atzealdean hiru haurrak lo zirela, etxe handi eta garbiak iruditu zitzaizkion denak, dotoreak eta tristeak. Gogoratzen du ezinezkoa iruditu zitzaiola hainbeste argi guztiak batera piztuta, eta txoratuta utzi zutela dena islatzen zuen ibaiko zubien itzalek. Gogoratzen ditu printzesa ezagunen izenak kaleetan, eta isiltasuna udazkeneko gau hartan, taxiaren motorraren hotsa baino ez, altzoan haurrak lo, kristalaz bestaldean mundu berria. Mundua.

Eusebio eta bera harro itzultzen ziren: «Egunero entsalada eta kafea». Eta ahizpak harrituta: «Egunero kafea?».

Juliak lagundu egiten die herrira joaten denean. Egun handia izaten da ahizpa nagusiarentzat, eskailerak garbitzen dituen bitartean min guztiak nori kontatu badaukalako.

– Osaba, ukuilura jaitsiko zara?

Eta osabak ezetz, bukatua duela ukuilukoa, eta larrera joan behar duela, edo Anastasiorengana. Orduan badaki osaba ostatura joango dela, eta eskailerarekin hasten da. Eman eta

eman eskuilarekin, harik eta osaba goitik behera agertzen den arte, ukuiluan ibiltzeko zatekin.

– Osaba, igo behar duzu?

Eta osabak ezetz. Eta eman eta eman eskuilarekin, eskailerako mailei dirdira berezi hori atera nahian, harik eta, halako batean, behetik gora osaba ukuiluan ibiltzeko zatekin agertzen den arte. Eta lasto pizar lokaztuak maila guztietan.

Lanpernak, otarrainak, izen horiek guztiak ikasi zituzten Eusebioren tratuei esker. Ikasi zuten frantses pixka bat ere, frantsesei ulertzeko moduan. Etxean gaztelaniaz egiten zuten.

– Gu beste klase batekoak gara, Julia –esaten zion–, orain hirian bizi gara.

Juliari ahaztu egiten zitzaion-eta batzuetan.

– A, les petits! Ils sont mignons!

Andrea ikusten zuenero –betaurreko beltz zorroztuak, gizonari «A, Eusebió!» esateko modua– lixiba usaina etortzen zitzaion Juliari. «Les pe-

tits» eta «mignons» ere nazkarekin esaten zuela iruditzen zitzaion, txikiei lepoa bihurritzeko tentazioari eutsi ezinean edo. Juliak ezin zuen eraman egongelatik alde egin behar izatea, Eusebiok andre frantsesarekin bakarrik uzteko agintzen zionean. Orduan inoiz baino tratanteagoa iruditzen zitzaion senarra. Orduan andre frantsesa adina gorrotatzen zuen.

Hurrengo egunean txitxardinak izaten ziren bazkaltzeko. Eta afaltzeko. Eta senarrak whiskia eta etxeko zapatilak ateratzeko eskatzen zion Juliari. Eta edalontzia jartzen zuen besaulkiaren beso gainean, fariasa pizten zuen, eta Juliak haurrak ateratzen zituen telebista gelatik, bazekielako Eusebiok lasaitasuna nahi izaten zuela.

Behin, andre frantsesari egindako ohiko bisita baten ondotik, Juliak inoiz zabaltzen ez zuen armarioa zabaldu zuen. Barrastadan, hantxe azaldu zen diru montoia, plater halako begien aurrean. Ehunka billete. Milaka libera. Harri bihurtuta egon zen une batez. Gero atea itxi zuen, bekatua egin izan balu bezala.

Gauean amets egin zuen billete guztiak eskaileratik behera barreiatzen zirela tximeleten

antzera, eta osabak zikindu egiten zituela bere zatekin, eta ukuiluraino irristatzen zirela, eta behiek zanpatzen zituztela han, eta simaur azpian desagertzen zirela azkenean.

Istripuarena gertatu zenean, lankideak deitu zion. Laino itxia sartu zitzaiela, poliki zetozela bai, baina errebuelta batean autoak eskuina jo eta bazterrera egin zutela.

– Eusebio zaurituta dago, baina ez du ezer larririk. Laster iritsiko gara.

– Laster iritsi, nondik?

Laster iritsiko zirela. Eta telefonoa eskegi zuen.

Senarra ikusi zuenean, atorra urraturik eta besoak marrakoz beteta, aitarekin gogoratu zen Julia. Eta Eusebiok gogor besarkatu zuenean, odola zein beroa den pentsatu zuen.

Eskumuturretik ukondoraino iristen zen zauririk luzeena.

– Medikua ezta aipatu ere –agindu zion Eusebiok–.

Etxeko kristal bat hautsita zauritu zela, hori esango zutela. Amodioa egin zutenean, Juliak ez zuen ezertxo ere sentitu, eta izutu egin zen.

Eusebiok maiz igurzten du besoa. Keinu oso berea du. Ukabila ixten du eta zauriak laztantzen hasten da. Masajeak ematen ditu ia beso osoa zeharkatzen duten orbain arrosetan, hitz egiten duen bitartean. Besaurrea bihurritzen du, arike-tak egingo balitu bezala. Beste batzuetan aza-lean atximurka hasten da, opiltxoak egiteko orearekin lanean.

Azal azpian antzematen ditu kristal puskak, harri kozkorrak. Hala esaten du. Esan ohi du gor-putzak libratuko dituela poliki-poliki, mareak bere hondakinak harean uzten dituen modu be-rean; eta hala agertzen dira, hala agertu dira orain arte, zati guztiak. Duela gutxi atera zaio azkena, abisatu gabe. Zauri lehorra orbain han-dienetik ireki zen, eta kristal muturra agertu ze-nean eskuz atera zuen. Zauria itxi egin zitzaion berriro. Juliari nazka ematen dio, eta haurrek atsegin dute. Jokoa dela iruditzen zaie.

– Oraindik badira batzuk barruan. Sumatzen ditut azal azpian. Batzuetan trabes jarri eta beren tokian jartzen ibili behar izaten dut.

Mutilatua dela esaten du barrez.

– Mutilatua, baina zein gudatan, Eusebio? –galdetzen diote lagunek olgetan.

Haurrak zorabiatuta daude etxera iritsi orduko. Eusebio aurreratu da. Juliaren inguruan, sei beso, zintzilik eta kexuka.

Gizonaren oinzolen arrasto lohiak korridorean eta sukaldean luzatzen dira. Zapatak mahai azpian bota, egongelan eseri eta oihu batean: «Julia, whiskia».

Telebistaren aurrean, edalontzia eskuan, gogobeterik sentitu da. Egun ona izan da, pentsatu du lehen tragoxka hartu duenean.

Julia, sukaldean, ahizparekin gogoratu da. Eta aitarekin, «etorri, nire printzesa» esanez. Negar malko lodiek bidea egin dute masailetan. Hirira iritsitakoan Eusebiok eta berak amodioa egin zuten lehen aldian bezala.

ASUN

Martin borda aurrean eserita dago, larrutu berri duten ardiari begira. Putzu gorri txikia lurrean. Ondoan narruak, halamoduz pilatuta. Marraka ari dira animaliak, burua tegia hesitzen duen langatik kanpo. Andresek maoizko buzoaren azpiko atorratik paketea atera, zigarroa piztu, jaiki eta barrurantz uxatu ditu. Zuhaitz gandorretan arratsalderoko dantza hasi dute abarrek, elkar astintzen. Bi anaiek paretaren kontra jarri dute bizkarra.

Esan-ez-esan ibili da egun osoan, dudatan barruak kiskaltzen dizkionak konpartitu behar ote dituen. Anaiak ez dio lagunduko, hori badaki. Baina ez du hori espero. Bota beharra dauka, besterik ez. Bestela ito egingo dela uste du. Horregatik, azkenean esan duenean, Martini korroka atera zaio ia:

– Asun haurdun zegoan, badakik?

Andres Martinengana bihurtu da bat-batean, kopetan zimur sakon horiek.

– Zer?

Anaia nagusiak ikara sumatu du, esatearekin batera. Ez daki Martinen esaldia izan den edo arratsa. Mirua zerua inguratzen ari da, kometa urduri bat bezala.

– Zer esan duk?

– Ez zakiat.

– Oxtia, Martin! Nola dakik?

Orain Martin da anaiari begira geratu dena. Mirua nonbait desagertu da. Kosta egin zaio erantzutea:

– Bazakiat.

Andresek sakon pipatu du zigarroa. Martinek beti miretsi du erretzeko duen modua, kea arnasteko tankera hori. Sudurra eta ahoa lainotik aterako balira bezala, eta txiki-txiki jartzen zaizkion begiak. Miresten du aizkora hartzeko modua eta mahaian ogia moztekoa. Keinu sendo horiekin nagusitasuna aitortu dio beti.

Urduri jarri du, badaki.

– Asun hil zuan, kito –esan du Andresek–. Istripua izan zuan eta orain ezin diagu ezer egin.

Martin ez da harritu entzun duenean:

– Bihar ere lana zagok. Aio.

Andres patrolera abiatu da. Motorra piztu duenean mirua altxatu da. Lokatzetan zinpizanpa urrutiratu da, zuhaitz artean galdu den arte. Martinek tenplerik gabea sumatzen du gorputz osoa, baina bertan egon nahi du oraindik.

Udazken bukaerako eguzki sinpleak arditegiko aurrealdea gorritu du une batez. Une bat bakarrik izan da. Berehala nagusitu dira itzalak. Basoa hasten den tokitik hontzaren ulua iritsi zaio Martini, eta Asunek bete dio pentsamendua.

Ez daki zergatik orain, berriro, oroitzapen horiek guztiak. Uste zuen ondo lurperatuak zituela denak, oroitzapenak gordetzen diren ganbaratik etsipenaren lausoaz ezabatu zituenean. Baina borbolak lapikoan nola, hala sortzen zaizkio, bata bestearen atzetik, eta ezin ditu kontrolatu. Ez dauka kare gehiago botatzeko.

Hontzaren uluak gogoak itzali dizkio, baina ez du mugitu nahi. Eta, hala ere, gero eta gogorragoa zaio bakardade hau.

– A ver, Martín, la lección.

Gainontzeko haurren aurrean irakurri behar izatea bereziki gorrotatzen zuen. Lotsagarri uzten zuen maisuak, anaia nagusiarenak ziren praka zaharrengatik, espartin bizartsuengatik edo eskularru higatuengatik.

– Igual que toda tu familia.

Eskolako argazkia ateratzeko eguna zen, galtzetako patrikan bolaluma lehertu zitzaionean. Kuxidadea. Arrebak oraindik gordea du erretratua. Zutik ageri da Martin, lehen lerroan tente, bi eskuak galtzetan jarrita zintzo demonio, zolda beltza ezkutatu nahian.

Eskolatik eskapo egin eta etxera iritsitakoan, labeko atea zabaldu eta sutara bota zituen koadernoak. Ez zela itzuliko.

Dendan lagunduko zuela erabaki zuen aitak.

Egunero, argitu baino lehen, Tuteratik iristen zen trenetik kutxak hartu eta gurdian kargatzen zituen. Gero, astoarekin, herrietara abiatzen zen Andresekin. Uda izan edo negua izan.

– Martintxo...

– Zer...

– Ipurdia txintxo!

– Ttuttuluba...

– Martin...

– ...

– Martin, jango diagu melokotoi bat?

– Tira.

Eta Andresek melokotoia hartu, anaiari beste bat pasa, eta gurdi atzean jartzen zen. Puskaka jaten zuen, aitak oparitutako labanatxoarekin. Pausoa gelditu ere egin gabe.

– Kilo erdi azukre.

– ...

– Hemen ez zagok kilo erdirik, txikito!

– Lau melokotoi.

– ...

– Melokotoi hauek mailatuta daude.

– Redios! Konforme ez bazaude fan zaitez beste dendara!

– Zaude, nik jarriko dizut –sartzen zen Andres, anaiaren aiur bizia ondo ezagututa.

Aitak beste redios fuerte bat mahai gainean jo eta ea zer gustatzen zitzaion galdetu zion Martini, herrietako andreen kexuak iritsi zitzaizkionean. Ea zer egingo zuen señoritoak. Eta beste

redios! fuerteago bat gero. Etxean asko zirela, eta dendari eskerrak! Ea ba zer egingo zuen señoritoak. Baina Martinek ez zuen jenio hori erraz kontrolatzen.

Herrietan burla egiten zioten. «Martin astoa, ekarri duka artoa?». Edo «Martin: txirringala erakutsi, eta hanka egin». Andresek ere barre egiten zuen.

Behin, ohiko buelta eginda, bide zaharretik ari ziren bi anaiak, burlekin nabarmentzen zen horietako batek kontrako bidea zekarrela ikusi zutenean. Martin baino helduagoa zen, gazte harroa berez. Martin karrotik jaitsi eta bide erdian jarri zen. Hantxe itxaron zion besteari, eskuina gerrian, ezkerra hagari helduta. Hurbildu zenean:

– Orain badaukak niri zeozer esateko?

Mutila harrituta zegoen. Martinek helduagoa ematen zuen.

– Ea, Martin... –Andresek ez zuen herrietako jendearekin liskarrik nahi.

Jaramonik ez.

– Ez badaukak ezer esatekorik, segi ezak. Baina esan ezak herrian nirekin elkartu haizela, bakarrik, eta mututu haizela.

Martinen ondotik pasa ahal izateko, mutikoak baztertu egin behar izan zuen.

Anaia iritsi denerako Martin lanean ari da ardien artean makurtuta. Ukuilua garbitzen ari da.

Lan egiteko moduan baino ez zaio garai bateko sasoia antzematen. Keinu guztiak ondo ikasiak ditu, alferreko ia deus ez. Langile sendoa izan da beti. Berak bakarrik altxa zezakeen etxe osoa, ezkaratzetik gailurreraino. Bi langileren lana egiteko gai zela esaten zuten. Sei metrotik behera erorita, aldaka lau tokitan txikitu zuen arte. Eraikuntzarako ezgai, baina erretirorik gabe, enkargu txikiekin jarraitu behar izan zuen. Baina gorputzak ez zuela min gehiago jasango esan zion. Orain, hezur guztietan sumatzen du.

Eguzkia agertu baino lehen esnatzen da, bizkarretik behera hanka puntetaraino iristen diren

kalanbreekin. Burua lurraren kontra lehertuko den sandia dela iruditzen zaio askotan.

Begiak itxita egoten da ohe zabalean, eta iruditu zaionean nahikoa indar bildu duela, hanka batekin probatzen du lehendabizi, bestearekin gero, biak ateratzen ditu azkenean, eta eseri egiten da ertzean.

Lurra hotz da. Kopeta zimurtuta, besoak dardara ttikitan.

Ia ilunpetan abiatzen da sukaldera, zapatila zaharrak arrastaka. Horrek lagundu egiten dio hezur guztiak mugitzen, eta odola sumatzen du pixkanaka zainetatik barna. Su azpiko txinarrak astintzen ditu, eta ozpinez hainbestetan garbitutako burdina berotzen hasten denean bezperako kafesne bera jartzen du epeltzen. Orduan hasten da mina baretzen.

Lehen argiak ikusten dituela, ogi papurrez betetzen du, goraino, koskez pintatutako katilua. Koilara batekin nahastu eta zurrupatzen hasten da.

Bide zaharretik behera heldu dira biak, astoa eta gurdia aurretik. Martin atorran kabitu ezinean dago. Neskak berak esan dio gaur lagunduko diola, eta herrira bueltan haga ere eskatu dio. Pakito gidatzen ari da.

– Begira Martin!

Irribarre horrekin barrua loratzen zaio mutilari.

– Begira Martin!

Haga lurrean utzi eta eskuak gorritu arte jan dituzte bazterreko sasietatik matxurretak. Harantzago, orbelaren azpian, onddo bat ikusi du Martinek. Zapia poltsikotik atera eta bertan bildu du. Kontu handiz sartu du berriro.

Bien artean jan dute errebueltoa, sukaldea alderik alde betetzen duen zurezko mahai txuriaren alde banatan barreka, ia klandestinoki, aita iritsi baino lehen.

Batzuetan oinaztura gaiztoak harrapatzen zituen biak bidean, jostaiek ere bai, eta txita eginda iristen ziren herrira. Sarrerako ganbelan neskak gona erantzi eta hantxe garbitzen zuen, gero ganbaran eseki eta hurrengo egunerako lehor eta garbi edukitzeko. Martinek ez begiratu

plantak egiten zituen, nabarmen, Pakitoren ondoan.

– Ezin diat Asunena burutik kendu.

Anaiak gazta zatia pasatu dio. Haize hotza sartu da berriro, eta kotoi hodei mardulak marrazten hasi dira goian.

– ...egunero burura.

– Baina zer ari haiz orain horrekin? Duela berrogei urteko kontuak dituk, Martin.

– Duela berrogeita bikoak.

Martinek ardiak jarriko zituela erabaki zuenetik, egunero lagundu dio. Bien artean altxatu dute tegi berria, bien artean hesitu dute zelai osoa. Asunena gertatu eta gero, Andres etxearen jabe egin zenean, bertan geratzeko eskatu zion. Etxe handia zela, bazegoela tokia biendako. Ea zer egingo zuen bordan bakarrik. Jarriko zituztela behiak eta behor batzuk, eta ez zutela askoz gehiago beharko. Martinek ez zuen hitz egin ere izan nahi. Etxe horretan zegoen guztiak Asun pizten zion.

– Hik ez huen asko estimatzen, ezta?

Anaiak ez dio erantzun.

Ama txoritxo bat bezala hil zen. Isilik eta negu gorrian.

Izeko txarki zegoela eta ahizparen laguntza behar zutela abisatu zutenean, Juana espartinekin eta mantelinarekin abiatu zen. Seme gazteenak basorako bidea bereizten zen tokiraino lagundu zuen. Herria utzi baino lehentxeago hasi zuen elurra, baina ez zuen buelta eman nahi izan. Lau egun iraun zuen ekaitzak. Martinek irudi hori gordeko zuen betiko: ama, mantelina iluna burugainean, eta paisaia zuritzen hasia. Elurretako ama birjinaren irudia.

Andresekin laranjak eta kardoak banatuta, eta animaliak ukuilura bilduta, etxera itzuli zenean ama ohean aurkitu zuen Martinek, burusia hanken gainean. Hurrengo egunean kalenturarekin esnatu zen. Pulmonia. Ez zen ohetik berriro altxatuko.

Amaren hilkutxa atera zutenean bera ez zen han. Ez zen gauera arte agertu, dena marrako eta zauri, basoaren iluntasunean basapiztiekin

borrokan izan balitz bezala. Ez zuen amari buruz gehiago hitz egingo.

Senarra eta zazpi seme-alaba utzi zituen Juanak. Eta amona bat, lau behi, dozena erdi bat txerri, bi behor eta herriko lau puntetan lur sail txikiak, batzuk pobreak, lihotarako baino balio ez zutenak. Pedrok probintziako lehengusuei egin zien kontu. Dendarekin laguntzeko norbait behar zuten etxean. Handik bi hilabetera iritsi zen Asun, hemezortzi urte egin berriak. Hamazortzi urte txuri, mardul eta alai. Martinenak eta bat gehiago.

Erraz irabazi zituen denak. Pedro fabrikatik iritsi eta bertan zuen beti zopa beroa mahaian, eta irratia jarrita eguerdiko partea entzuteko. ¡Viva Franco! entzuten zuenean ¡Viva! erantzun eta bazkaltzen hasten zen. Asun sukaldean gelditzen zen. Gizonari gustatzen zitzaion konpainia isil hori.

Laster, Andresek etxeko kontuen ardura hartzearekin batera, dendarekin laguntzen hasi zen Asun. Martini begietatik sartu zitzaion lilura. Goizean goiz altxatu eta beso txuriak ondoko gelako ohetik zintzilik, eta kuleroak baratzeko eseki-

lekuan, eta usain berria sukaldean. Irudika zezakeen bular hori, eta irribarrea zuzendu zion hartan, izterrak dantzan San Pedroko belardian. Plazako zortzikoan eskua eman zionekoan, eta musu iheskor hura. Nola jezten zituen behiak, txiza nola egiten zuen ukuilu izkinan. Usain berri hori, oheraino jarraitzen ziona, eta besoak zintzilik izaren artean.

– Badakik zerekin gogoratzen naizen? Kafea aitari egiten zionean, zer isilik egoten zen beti. Aita jaisten zenerako han zen bera, sua egina eta kafea bero. Han beti. Eta irratia eguerdian, notiziak entzuteko. Eta gerra bukatu zenean zein pozik zen bera ere, aita hain kontent ikusita. Bukatu dela gerra, bukatu dela! Eta bere ere kontent.

Lehen tantak beti bezala iritsi dira, ohartu gabe. Ez da euria, baina langar hau, dena menderatzen duena.

Isilik egin dute bazkaria, Martinek prestatutako lapikokoarekin. Kafea hartuta, anaia nagusia altxatu egin da.

– Lan asko zagok egiteko.

Eta aharikoengana joan da, apartatzera.

Dendak sekulako arnasa eman zion etxeari. Hori esaten zuen beti aitak, dendarengatik ez bazen, ezingo zutela. Eta Iriarterekin zorrak kito egiteko egunen bezperetan, aitak ahalegintzeko esaten zion Martini. Eta ohi baino bi kutxa melokotoi gehiago enkargatzen zuten Tuteran.

Martinek kutxak antolatzen zituen. Herrikoek Asunekin zuten tratua.

– Lau sagar.

– Kanbiorik ez dut, eramango dituzu sei, ezta?

Herrira bueltan, fistuka etortzen zen neskatxa, gurdiaren atzealdean eserita, bernak airean. Eta Martinek jan egiten zuen begiradarekin.

Sua piztu zenean, belarretan ari ziren etxeko denak.

Andres eta Martin bazkaldu berriak dira, Asunek eramandako ontzi batetik. Gurdia lastoz za-

matu eta etxera itzuli dira hirurak; Asun eta Martin atzean, Andres itaurreko. Lanez gainezka dabiltza. Bi aste baino ez dira falta ferietarako, eta belarrak bukatu nahi dituzte. Martinek ez du beharrik nahi ordurako. Asunek, gaur, bakarrik egin behar izan du herrietako buelta.

Lasto fardelak ukuiluan jartzen ari dira bi anaiak. Asun gora joan da.

– Ferietan hitz egingo diat aitarekin. Asunekin moldatzen naizela, eta fabrikan hasi nahi dudala, dirua aurrezteko.

Fardelen usain hau gustatzen zaio. Asunekin izaniko jokoak dakarzkio gogora, intziri itoak, aiene mutuak. Neskaren izterrak nola korapilatzen zaizkion, eta zein indartsu sentitzen dituen horrelakoetan. Gogora dakarkio haren begirada, lotsarik gabea. Eta nola besarkatzen duen. Bien urduritasuna dena amaitu orduko, biak elkarri josita fardel horren atzean; bien hatsa, leihotxotik sartzen den argiarekin nabarmentzen dena, eta animalien begiratu harritua. Usain honekin, Martini zimiko ezaguna pizten zaio tripatik behera.

– Hasieran hemen jarraituko diagu. Diru apur bat bildu eta etxe berria altxatu arte.

Martin bakarrik ari da. Anaiak lagundu egiten dio, besterik ez.

Bukatu dutenean, gurdiarekin aurreratu da. Andresek atera du aitaren zorrotik ostutako zigarroa, eta piztu egin du, fardel baten gainean eserita. Zigarro gaizki lotuari suzko hondakinak erortzen zaizkiola, berak ere ezin du Asun burutik kendu. Ezin du kendu bularrei atzetik heldu zienekoa, ukuilu honetan bertan, zakila haren ipurdiaren kontra, baina neskak askatzea lortu du –sasoia!, pentsatu zuen, eta are gehiago tentetu zitzaion–, buelta eman, eta sardea erakutsi dio.

– Berriro saiatzen bahaiz, barruraino sartuko diat!

– Lasai, andrea, broma bat hunan. Uztan hori...

– Alde egin ezak nire paretik, Andres, benetan ari nauk.

– Zer egingo dun, Martintxori esango dion, ala?

– Andres, ez nauk brometan ari, behin baino gehiagotan esan diat...

Gogoa sabaitik jaitsi duenean, jaio berri den txahaltxoaren begirada aurkitu du hortxe parean.

Lastozko alfonbran, gar txikiak. Gar ikusezinak.

Andres anaiaren atzetik abiatu da.

Kale estu eta ilunetatik barna txirriken soinua baino ez da aditzen.

Larreraino iritsi da abisua. Martinek kolpeka sumatu du barrua berehala, eta bera aurreratu da korrika. Barrideek animaliak atera dituzte eta baldeka ari dira lasto montoiaren gainean, begiak gorri. Belarra kalera atera dute azkenean. Ezin ezer gehiago egin, keak ez du uzten. Suak ez du gora jo gutxienez. Barruraino astinaldia ordea, norbaitek galdetu duenean: «Eta Asun?».

Siestakan hil zen. Besoak ohetik behera zintzilika aurkitu zuten. Keak birikak lehertu bazizkion ere, ez zela esnatu esan zuen medikuak.

Amorruarekin itsututa, Martinek neskaren gelako armairua eta ohea eta aulkia hartu eta trenbide ondoko gainaldera eraman zituen arratsalde hartan bertan, bere desesperazio guztia porrarekin txiki-txiki utzi nahian. Kolpeak eta garra-

siak auzuneko azken etxeetan ere entzun zituzten. Ezpal guztiak hartu eta su eman zien. Sugarrek apartatzera behartu zutenean, etxe atzeko bidetik abiatu zen, bidean topatzen zituen langa eta hesiekin hankalatrabaka, basoan galdu zen arte. Han harrapatu zuen gauak. Borda baten inguruan babestuta, amets egin zuen. Plazan zegoen. Jazbanaren musikarekin dantza sueltoan ari ziren gazteak. Martinek Asunengana iritsi nahi du, baina jendeak ez dio uzten, eta ez dio uzten. Plaza animaliez bete da gero, eta berak Asunengana iritsi nahi, eta ezin. Handik gutxira, Asun jada ez dago.

Esnatu zenean, erabakita zeukan.

Goiz osoan ez dute gaia berriro aipatu. Bigarren tegia altxatzeko lanak ez die utzi. Biak atsedenik gabe dabiltza markak egiten, hariak tenkatzen eta adreiluak prestatzen.

Martinek etxe hura ahaztu behar zuen, eta probintziara alde egin zuen, fabriketara. Bi urte

eman zituen labe artean. Eta zorroa billete handiekin beteta itzuli zenean, aitak Iriarterengana bidali zuen, zorrak kitatzera. Andresentzat izango zen etxeko zorrak kitatzera. Martinek ez zuen duro haietako bakar bat ere inoiz ikusi, baina gustura eman zuen dena: eskuetan erre egiten zion. Ezin zuen burutik kendu hori izan zitekeela hastekoa. Egingo zuela montoia, eta egun batean erakutsiko ziola Asuni, eta esango ziola berak egin zezakeela etxea, bere bi esku eta bi beso horiekin. Fabrikan egingo zuela lan, aitak bezala, eta txerriak eta bi txahaltxo jarriko zituztela, berak zainduko zituela eta egingo zutela aurrera. Eramango zituztela basora, eta gero ekarriko zituztela eta matxurretak jango zituztela bidean.

Gustura eman zuen, etxea askatzeko modua ere bazelako. Eta etxea askatzearekin batera, lepo inguruan bihurritzen zitzaion sokatik bere burua ere askatzen zuen irudipena izan zuen.

Horregatik, diru hura hasiera izan zitekeelako, tori, esan zion Iriarteri. «Tori», eta dendako mostradorearen gainera bota zion billete montoia. Eta saltzailea azukre, olio, irin eta ardotan

zenbat zor zuten kontuak egiten hasi baino lehen, Pedroren seme txikiak zenbat ekartzen zion zenbatzen hasi baino lehen, Martin kalean zen atzera, almazenaren ateko ezkilatxoaren hotsa dantzan, Asuni lehenago zergatik ez zion eskatu eta madarikazioka, iletik behera euri tantak irristatzen zitzaizkiola.

Ez dago gehiago. Martinek lanean bilatu zuen amorru gaztearentzako sendagaia, eta gaztetasuna bezala joan zitzaizkion urteak. Hainbeste etxe altxatuta, kixuak bronkioak erre zizkion, eta iluntze batean, lana bukatu behar zela eta iluntzean lanean oraindik, eta eskailera gaizki kokatuta, eta zurezko habe hori berak bakarrik jarri nahi, baina iluntzen hasia, eta bera bakarrik.

Asunekin oroitu zen erortzen ari zelarik.

Esnai aurkitu zuten, esnai baina lasai. Eta aldaka lau tokitan hautsita.

– Dena gogoratu orain, zertarako? –galdetu dio.

Ez du ezer ulertu, pentsatu du Martinek.

– Nik ez diat hau nahi, Andres. Ez diat bilatu.

Anaiak ez du ezer esan. Zigarroa piztu du, besterik ez.

– Badakik? –jarraitu nahi du.

– Zer?

Baina ezin du.

Eta goizero, begiak zabaldu orduko, badaki ametsaren zatiren batean, izkinaren batean gorderik, irribarrea erakutsi diola. Gero irudia belzten da poliki-poliki, eta gero desegiten da, dena hauts. Bere irudi horrek barruak kiskaltzen dizkio goizero. Eta jaikitzen denean, ez du beste pentsamendurik: gaua noiz iritsiko den, lotara joan eta bere irribarre hori berriro ikusteko.

Patrolarekin aurreratu duenean, etxerako bueltan, Andresi iruditu zaio anaia kixu zakuak garraiatzen ari dela oraindik: bizkarrezurraren formak aurreraka makurrarazten du. Ile horia –amaren familiakoa– bustia du oraindik. Eta pentsatu du esan behar diola etxera etortzeko. Itzultzeko gurasoen etxera. Ez duela ezer egiten hor, bakarrik, borda hotz eta txiki horretan.

EZKURRAK

Mutilak ardo txuri gehiago isuri dio edalontzian, ardo apartsua, txinpartaduna, berari gustatzen zaiona. Elkarri begira geratu dira biak, pitsa nola desegiten den, zast, miretsita berde fresko horrekin. Topa egin dute, eta borbol ikusezinek kili-kili egin diete ezpainetan. Ganba zurien arrasto arrosa edalontzietan.

Lepo ederra duela esan dio mutilak. Lepoa dela gehien gustatzen zaiona. Begitan hartuta dituela zapiak eta lepoko guztiak.

– Niri eskuak gustatzen zaizkit. Eskuetan ikusten dut jendearen izaera.

– Nolakoak dira nireak?

– Finak eta motzak. Luzeak hotzak dira, guraizeak. Zainak gehiegi markatzen zaizkie. Min egingo dutela iruditu zait beti.

– Eta lodiak?

– Lodiak zabarrak dira, koipetsuak edo. Ez dira erabilgarriak.

Bigarren platera zerbitzatu diete. Jende gutxi dago jatetxean.

Debekuak berez dakarren emozioarekin afaltzen ari dira. Sasikoak balira bezala.

Larunbatero elkartu ohi den taldea tabernatik irten denean, azkenak geratu eta, eskutik helduta eta korrika txikian, galtzea lortu dute. Neskak jatetxeraino eraman du eskua askatu gabe. Berak erreserbatu du. Berea izan da ideia.

Mutilari gustatu zaio eskuen teoria hori.

– Eta nireak, orduan?

Ez dio askatzen.

– Esan dizut.

– Esan berriro, mesedez.

Pentsatu behar izan du.

– Delikatuak dira. Ez bulegari batenak, horiek ordenagailu kolorea izaten dute. Zure eskuek pertsonalitatea dute, autonomoak dira. Haien bidez hitz egiten duzula ematen du batzuetan. Harrigarri egiten zait nola erabiltzen dituzun. Zure begien luzapena direla esango nuke.

Mutilak bularretan irudikatu ditu, bizkarrean eta ipurdian, beren kasa. Eta aluan, suabesuabe. Ardo gehiago hartu du orduan.

Isilunea egiten da batzuetan. Mutilak pentsatzen du zer izango duen buruan, eta neskari iru-

ditzen zaio aspertzen ari dela. Horrelakoetan ardo txuri gehiago edaten dute biek.

Elkarri begira eserita daude. Neskak heldu egin dio berriro, eta zein politak dituen. Mutilak bernak oratu nahiko lizkioke, esku zoragarri hauekin; besoa apur bat laztandu. Baina ez da iristen.

– Oso polita zaude.

Elkarri begira egon dira, ezer esan gabe. Neskari masailak gorritu zaizkio, eta begirada jaitsi behar izan du. Joko hori gustatzen zaio mutilari. Berak irabazten du beti.

Jokoa izan da orain arteko guztia. Halako batean ezberdin agertu zitzaion begien aurrean. Nabarmenago irribarrea, nabarmenago ibilera. Agertu zitzaion inoiz agertu ez balitzaio bezala. Galdetu zuen bere izena zein zen. Galdetu zuen noren familiakoa zen. Eta betiko tabernaren hondoko zuloaren iluntasunaren babesean «Non ezkutatu zara orain arte?» galdetu zionean, erantzuna begi horietan zegoela iruditu zitzaion: «Noiz arte izango zara nire ondoan?».

Muxua biak bakarrik geratu ziren batean etorri zen. Muxua gazi sentitu zuen, eta gustatu zitzaion. Eskutik fuerte heldu eta koadrilari ihes egitea proposatu zionean, orduantxe erabaki zuen neska hark merezi zuela.

– Kafea?

– Ez. Kanpoan hartuko dugu.

Berak ordaindu du.

Bilatu dute bien gustuko tokia eta elkarren ondoan eseri dira. Neskaren belaun gainean jarri du eskua. Neska hunkitu egin da. Hitz egiten duten bitartean eskuak gorago egin du gona azpitik, harik eta irribarre batekin gelditu dion arte.

– Goazen –esan dio.

Proposamenak ezustean harrapatu du. Herriaren muturreko basorako bideak gaztetako oroitzapenak ekarri dizkio. Mailastoen artean ezkutaketara jolasten zirenekoa edo, sagarrekin prakak lehertu beharrean eta korrika, Pablo Txikik eskopeta atera eta gatza jaurtitzen zienekoa. Edo neskei «titiak ukitzen utziko didan?» galdetzen zietenekoak, edota Maribel, hosto erori be-

rrien gainean kukubilko, txotxabarra motxinean gora eta behera, gora eta behera sartzen harrapatu zutenekoa. Edo zelai oparoan elkar goxatzen ari ziren bikoteak tirabikearekin izorratzen zituztenekoak.

Iritsi direnean, zoratuta egon dira iluntasunaren argiarekin. Goian, haritzetatik gora, milaka begi dirdaitsu ageri dira, festarako prest. Arropak patxadaz erantzi dizkiote elkarri. Epel dago gaua, eta autoaren leihotik ziza usaina heldu da, eta belarrarena.

Atzeko besaulkian, ganbena eta ardo txuriarena eta bularrarena eta zakilarena eta lepoarena eta eskuarena. Esku usaina dago, hori da.

Zuhaitzetatik behera salto egiten duten ezkurren kolpe ttikiak baino ez dituzte aditzen autoaren sabaian. Eta urrun, oso urrun, hegazkin bat.

– Maite zaitut.

– Ez esan hori.

MIKEL

– Aita, iluntasuna sartzen da.

Leihoa, ohetik begiratuta, hondorik gabeko zuloa iruditzen zaie biei. Bestaldea misterioa da. Zuraren zirrikituetatik antsiak eta aiotsak iristen zaizkie, dantzan denak haize gorrietan zamalka, uluka saldo ikusezinak.

Mikel izaren azpian bilduta dago.

– Ikusten dituzu?

Batzuk berdeak direla kontatu dio, beste batzuk katu formakoak, handienak hegan egiten duten zaldiak. Badira suzko ezpatak dituztenak eta isatsetik oinazturak jaurtitzen dituztenak ere.

– Ikusten dituzu?

Ezker begiarekin zaintzen ditu Mikelek, gorputz ttikiak burusiaren babesa bilatzen duen bitartean.

Gau honetan ez du Pantxo hartza bere ondoan, eta ezin ditu ur pistolaz uxatu.

– Gelditu pixka bat nirekin –eskatu dio aitari.

Bular gainean jarri dio besoa, ez dela joango ziurtatzeko. Eta begiak itxi ditu.

Hondartza ondoko kale batean, umeak uretara itzuli nahi du.

– Pixka bat gehiago, aita!

– Berandu egin zaigu.

– Azken bainua, azken-azkena.

– Bihar itzuliko gara, ados?

Aita urrundu egin da, umeak jarraituko dion segurantziaz. Hala egiten du beti.

– Goazen, Mikel –esan dio hamaikagarrenez.

Badaki atzetik datorkiola. Badaki begiratzen baldin badu, haurrak berriro hondartzarantz egin eta beste bainu bat eskatuko diola. Horregatik ez du atzera begiratu.

Dendan sartu eta denetarik erosten hasi da. Halako batean, txirriken hots luzea, oihu bat bezalakoa, eta ondoren isiltasuna. Hurrengo segundoan beti nagusitzen den isiltasuna. Minutu bat baino gehiago irauten duen segundo hori, inoiz ahazten ez den unea. Eta badaki: Mikel lurrean dago, begiez inguratuta, eta kopetan

arrautza txiki bat atera zaio. Besoak aitaren lepo aldera luzatuta dauzka.

Beti amets bera.

Aitak idatzi du:

«Badakit ezingo nukeela bere amaren tokia bete. Ezingo nukeela inoiz ere bete. Badakit zerbait fisikoa dela, azaldu ezin daitekeen zerbait. Bederatzi hilabete horiekin lotuta dagoena, zilbor-heste barru-barrukoa. Plus bat, nik ez dudana. Amaren falta da haur batek inoiz gainditu ezin dezakeena.

«Gaur musuka zorabiatu nau. Besaulkian ginen. Poliki-poliki hurbildu zait, tatorro jartzen denean egiten duen moduan. Zeharka begiratu diot, baina ez dut ezer esan nahi izan.

«Masail gorria hurbildu eta nire belarrian, sudurrean, ahoan maite egin dit, dena azal. Hats epelak kili-kili belarri puntan. Bi begi haren masail gorrian, bi esku eta mila hatz masail txikian. Ez du kokotsaren muga gainditu, baina ferekak gorputz osoa zeharkatu dit. Ezpainik ez lukeen batek egingo lukeen bezala, musurik suabeena

eman dit. Bere modura, deus ahoskatu gabe, behar zaitut esan dit».

Ez ditu musuak maite. Beste erremediorik ez badu ezpainak doi-doi hurbiltzen ditu, ukitu baino ez, eta salto txikitan urruntzen da. Gero musua garbitzen du, disimuluz, eskugainarekin, irri egiten duen bitartean.

Amonaren besazpiko gihar indargea laztantzea gustatzen zaio. Andrea lotsatzen da adina salatzen dion biguntasun horregatik. Beste inori ez lioke horrelakorik utziko. Baina Mikelen losajeekin gaztetu egiten da. Azal erori zaildua ezkutatzera behartzen du koketeriak, baina leunek gorputz nekatua deskantsatzen diote. Harreman sotila dute elkarrekin, ia primitiboa. Txikiak esan nahi dio gorputz hori misterioa dela beretzat, errekak bezalakoak direla zimurrak; loak hartu aurreko une beti goxoan, lanpara horiaren argiaz amonaren ahotik entzundako istorio horiek guztiak arrasto horietan gertatzen direla irudikatzen

duela. Amonak bere zahartasuna biluzten dio. Eta umearen begi distiratsuak ikusten dituenean, ama sentitzen da berriro. Eme. Horregatik, berari bakarrik uzten dio ukitzen, jolasten.

Harremanetarako zorrotza da. Baditu gertugertukoak, inoiz bere kutunik jaso ez dutenak. Usaimenarekin zerikusia duela uste du aitak. Besteen eskuak, Mikelentzat, gaziak dira; besarkadak, aldiz, hurbilegiak; hitz goxoak, epelegiak. Musuak, noski, bustiak. Horregatik higuin die zapore berriei. Horregatik, azkenean bere gustukoren bat deskubritzen duenean, zentzumen guztiekin gozatzen du.

Hasperenka hasten da jatean. Mokaduka probatzea atsegin du, pozean, baina ase denean koilara puntarekin dastatzen du puska bakoitza, patxada harrigarriz. Somelier batek bezala, mingainaren papila bakoitzarekin sentitzen du, eta plazeraren irudia da.

Gaur, zebrabidea baino lehentxeago gertatu da. Biak kaletik heldu dira, biak nor bere burutazioekin. Aurrean jarri zaien andrearen ondoan egin dituzte errepidera iritsi arteko metroak. Semaforoaren zain, aita ohartu da: ile hori bizia, perlazko belarritakoak eta takoi altuko zapatak. Argi denak. Txikia itxura ederreko berokiari begira geratu da, eta «alfonbra goxoa» pentsatu bide du. Gero, automatikoa izan da: eskua luzatu du, azal erakargarri hori laztantzeko. Sentitzeko. Andrea atzera bihurtu da, haserre antzean. Txikiak eta aitak elkarri begiratu diote, harrituta. Andreak aurrera jarraitu duenean, barrez hasi dira.

Ospitalean, goizegi munduratutako jaioberrien kutxa metalikoetan, abaroan zegoela esaten zuten gurasoek, nahiz kableek gorputz osoa marraztu. Azala horitua erabat, zimurtuta, ondoko umeek, haren aldean, txekor sendoak irudi. Siestarik luzeena egiten ari zela esaten zuten, mugitzen zen bakoitzean buelta emateko prest beti.

Aitak idatzi du:

«Goizegi jaiotzen direnei arnasa hartzea ahazten zaie batzuetan. Apnea esaten diote. Gorputza erabat osatu gabea izatearen ondorioa. Horregatik itsasten dizkiete kolore askotako sentsoreak gorputz osoan, makinetara entxufaturik. Eta ametsa gozoegia denean, tripa beteta dutenean, edo jada pixoihala zikindu eta lasai gelditu direnean, arnasa hartzea ahazten zaie batzuetan. Behatz puntaren tamainako birikak behar den unean betetzen ez dituztenean, piztu egiten dira alarmak, literalki piztu ere. Erizainek ez dute ezer egin behar, haurraren gorputza bera konturatzen delako segituan; baina haur bakoitza argi gorria da, ustekabeko alarma».

Mikelen kilika belarri atzealdean dago. Horrekin txoratzen da. Baina berak bakarrik daki hori. Berari bakarrik esaten dio «egizkidazu gauzak belarrian».

Badaki ez duela inoiz ere amaren tokia beteko.

Logelako leiho txikitik iluntasuna sartzen dela esan dio gaur. Gau iluna da, eta haizeak ametsak xaxatzen ditu teilatutik behera.

– Gelditu pixka batean nirekin –erregutu dio.

Eta hortxe, bere arnasa gero eta lasaiagoarekin naretuta, apneaz gogoratu da aita.

PELLO

Euri tantak, leihoan, zapaburuak dira, labur eta iheskorrak. Kolpe batez agertzen dira, burua loditzen zaie eta, gero, etsia hartzen dute, kristalean osatzen diren errekasto meharretatik desagertu arte, ezinegonak itota.

Gizona kalera begira dago.

Lepo ondoa gogortuta nabaritzen hasia zen aulkitik altxatzea erabaki duenean. Ez daki zenbat ordu daramatzan, baina gogoan du kafea bi aldiz egin duela, telefonoak hiru aldiz jo duela. Bi mezu utzi dituzte erantzungailuan.

Gela ilunpean dago ia.

Liburutegira hurbildu da, baina bat-batean burura etorri zaion titulua ez du aurkitu. Hamaikagarrenez liburuak apailatu behar dituela pentsatu du. Eta leihora itzuli da.

Batzuetan uste du kristalezko kaiolan bizi dela. Ura zirrikituetatik sartzen dela, eta dena amets ergela dela, ez dagoela bakarrik, ez dagoela gogaituta.

Bere hatsaren lurrinak kristalean instalatu den hezetasuna lausotu du.

Jertsea jantzi du.

Sabaian alarde bat dabil atabal joka. Gelditu egin da une batez, euri tanten neurria hartu nahian. Lasaigarria zaio, kattuttero. Euria atsegin duela konturatu da aste bi hauetan. Atsegin ez da hitza. Euriarekin sosegatzen da, hori da. Euriarekin erretzen du denbora.

«Horrela erretzen duk denbora?», galdetu dio bere buruari.

Kalea azkar zeharkatzen dute aterkiek.

Libretan oharrak: «Bi aste atertu gabe. Ibai inguruko mazeletatik lohi zohiti handiak puskaka, azukre marroia ur bizietan desegina. Larre eta soro berdeak zingira bilakatuta, eta behiak errapeetaraino hondoratuta, marruka. Izain-izurrite biblikoa, eta egunkarietako titularrak: *Nekazariek hondamendi eremua eskatuko dute; Suizidioen kopurua biderkatu egin da landa eremuan; Liburu tristeak aurtengo azokan.* Kexuz beteriko sinfoniak, txuri eta beltzezko koadroak».

Orain leihotik irristatzen diren ziraun horiek baino ez ditu ikusten.

Gelan barreiatzen diren zirriborro pilarekin haserretu da, eseri nahi izan duenean. Baina gustatzen zaio anabasa. Sentitu behar du eseri beharra, sikiera, geratzen zaiola.

Gabardinaren bila aritu da. Kaleko atea zabaldu baino lehen, laneko gelari behakoa eman eta irten egin da.

Estua da kalea, estua eta hotza. Norbaitek idatzi zuen –aspaldi irakurri zuen oroitzen ez duen oroitzapen liburu batean– bere hiriko kaleetan haizeak zeharkatzen dituen autobideez. Bereak bi norabideko lau erreitakoa behar du, luzea eta zabala beraz, abiadura neurtzeko oztoporik gabea. Ideia gustatu zaio. Libreta atera eta apuntatu du.

«Nere kalea» irakurri duenean barre egin du.

Herrian erobandera fama zuen, ajolabaiko. Etxe ondoko hormak, zumarren azalak, esku ahurrak, zapatetako zoldak, eskoletako liburuak, denak marrazki zentzubakoez betetzeko tema bizia zeukalako. Galdetzen ziotenean barre egiten zuen.

Eta euripean saltoka hasten zelako putzuetan.

Irakasleen aurrean isilik geratzen zen.

Herrian, erobandera. Txorua.

Hirian ez da inor.

Gustatzen zaio inongotartasun hau.

Kalean, bufadak zaplastekoa eman dio ezkerretik. Lepokoa goratu du. Hodi zulatuetatik borborka heldu da ura.

Liburu denda ondoko tabernaren atean, ileapaindegi gaineko bizitzan bizi den neska errietan ari da txakurrarekin.

– Ez dizut berriro esango, Rocky. Gaiztoa zara gero!

Eta basoerdiari eusten ez dion eskuarekin buruan eman dio, poliki. Txakurra harritu egin da,

kale erdian dagoen gizonarengana jiratu du burua eta are gehiago hurbildu da pareta aldera. Kuzkurtu egin da, txakurrek egiten duten bezala.

– Ez naiz egun osoa zure atzetik ibiliko, Rocky. Badakizu zer egin behar duzun. Gaiztoa zara gero!

Txakurrak ahoa zabaldu eta kale bukaeran entzun duen soinuari erreparatu dio. Soka lotuta duela ohartu da gero. Atzeko bi hanken gainean eserita dago.

Neskaren ile beltz lisotik dilindan labaintzen da euria. Kamiseta txuri higatua itsasten zaio eta bularren parean bi pinportatxo ageri dira harro. Ematen du ur baldea erori berri zaiola gainera.

– Entzun duzu?

Txakurrarengana makurtu da, eta animaliak soraio begiratu dio. Neskak lurrean utzi du eda-lontzia, soka atetik askatu eta txakurrarekin urrundu da kalean gora. Putzu batean galtzerdi-raino sartu du hanka, baina ez du atzera egin. Zola azpian borbol txikiak sortzen ditu zapaltzen duenean.

Haizea iparrekoa dela usnatu eta ezkerraldetik zeharkatu du kalea.

Marra eta kolore haiek forma behar zutela esaten zioten. Paisaiak eta erretratuak pintatu behar zituela, oinarriak ikasi.

Libretan apuntatua dauka. «Ezin da ekarri paisaia oihalera. Oroitzapenak argazkien bidez finkatu nahi izatea bezalakoa litzateke. Paisaia inpresio bat da. Errealitatearekin zerikusirik ez duena».

Afaltzeko ezer ez duela gogoratu eta kale bukaerako janari-denda aurrean gelditu da. Kristalean, *Coloniales Urrutia. Desde 1920*. Hutsik dago, eta dendaria marrubiak paratzen ari da zumezko saski dotoreetan, miniaturetako antzerkitxo baterako atrezzoa balitz bezala. Mardulak dira fruituak, tentagarriak. Bi piezako soineko estuak formak markatzen dizkio andreari. Ez da gaztea, baina asko zaindu dela pentsatu du gizonak; ez duela zorigaitz handirik izan. Marrubiak

saskian dotore jartzea, hori izan duela, urteetan, kezka bakarra. Pentsatu ere, behin baino gehiagotan pentsatu du, dendaren atzeko aldean, ate jiratorioaz bestaldean, tomate eta melokotoi kutxen kontra jarrita, andrea bere aurrean masturbatzen dela, eta soinekoaren botoiak bata bestearen atzetik askatzen dituela ezker eskuaz. «Amorantea eduki behar dik, derrigor».

Orain marrubi aleak bereizten ari da.

Bakarrik dago erakusleihoaren aurrean. Erakusleiho zabala da. Andreak makurtu egin behar izan du marrubia hartzeko. Bi bularren arteko arroila eskaini dio. Ikaratu egin da. Pintorea kristalaren aurrean ikusi duenean, irribarre adeitsua eskaini dio dendariak. Gero marrubiak jartzen jarraitu du.

Denda barrutik itzuli da senarra, mermelada poteekin, panazko galtzak eta jertse marroia. Agur esan dio buruarekin. Diosala itzuli, eta ondoko kaletik gora jarraitu du.

Gustatzen zaio auzoa. Pasabide ilunak ditu, izkinaz beteak, eta sabela markatzen duten

etxeak, ajeak jota, ximur nabarmenak. Urteen marka nonahi, koskak kixuan eta hezetasun zoldak, eguzkiaren patina ere bai.

Kolore hauek interesatzen zaizkio. «Pintoreak errealitatearen detaileak baino ezin ditu irudikatu, zati ñimiño eta berez hutsalak. Parean duen pareta horren kolorera hurbildu, esaterako. Harrian irristatzen denean euriak sortzen duen isla imitatu». Sortzaile hitzak berak barregura ematen dio.

Gustatzen zaizkio pareta hauek, denak desberdinak. Horregatik, detaile berriak aurkitzen ditu egunero. Galdu den behialako margoaren arrastoa; balkoiak enmarkatzen zituen mosaikoen irudia; harlauzak, batzuk hautsita edo altxatuta. Denen artean pintura modernista handia osatzen dutela iruditzen zaio: murala atari zabalean.

Jendeak teilapeetan bilatzen du babesa. Estropezu egiten dute sarritan, portaletik sartu-aterean, aterkiak gurutzatzen direnean.

Bikote bat doa kale erditik, ezaxola, bera bezala, ileak bekokian itsatsita, praka barrenak arrastaka. Idazlearen esaldiaz oroitu da, euri tantak, hirietako kaleetan, bisiguen begiak bezalakoak zirela esan zuenean. Definizio hori beti gustatu izan zaio. Nola ez zitzaion berari bururatu pentsatu du. «Horren gauza nabarmena». Herrian bazuten hitz bat horretarako, baina ahaztua du.

Elizako arkupeetan sartu da. Bi ate astunak bultzatu eta karranka itzuli diote. Harritu egin da epeltasunarekin. Zurajearen minek deseroso sentiarazten dute, halako hitzarmena hausten ari dela iruditzen zaio-eta, baina inor ez da bihurtu. Konfesatoki batean itzal beltz iheskorra antzeman du. Banku batean eseri da. Beti egiten du. Kandelen dardarek santuen irudiak argitzen dituzte, orain bai, orain ez. Bizia ematen diete horrela. Zoragarri zaio tenpluaren soiltasuna. Babesa da bururatzen zaion hitz bakarra. Eliza honetan sartzen den bakoitzean horixe da sentipena. Atsegin du. Baina kikiltzen du. Hori ote da erlijioa?

Irtetean karranka itzuli dio ate astunak. Eskale bat dago, erdi lo.

Okindegian kaleraino iristen da ilara. Aterkiek putzu txikiak uzten dituzte baldosetan. Gizonak ez du txandarik eskatu. Okinak zer nahi duen noiz galdetuko zain dago, besterik gabe. Haren begirada bilatu du. Aurkitu duenean, andreak berehala esan dio:

– Gaur gustatuko zaizkizun bi gorde ditut.

Kolore eta forma guztietako ogi pilaren atzean ezkutaturik, saltzaileak bi biribil aukeratu ditu.

– Hau gaurkoa da. Beste hau atzokoa.

Ogiei begira gelditu dira biak, bi ogiri begiratzen zaien bezala.

– Gozo dituzu?

Gizonak ez du erantzun. Hartu ditu biak eta buelta eman die, sekreturen baten bila. Salmahai gainean jarri ditu ondoren. Begiratu du apalategira, eta salmahaira gero. Opil koloreko bat seinalatu du. Okinak eman dionean, besteen ondoan jarri du.

Azterketa arreta handiz jarraitzen dute bezeroek. Okindegia antigoaleko denda da, eta ogiak portzelanazko pitxarrak. Andrea eta gizona, adituak.

Ilaran marmarra hasi da.

Gizonak ogi bat besteen gainean paratu eta buelta eman dio berriro. Urrundu egin da pixka bat, eskortzo egokiaren bila. «Barkatu», esan dio atzekoari.

– Biak eramango ditut.

Bodegoia gustatu zaio.

– Koadro polit askoa aterako zaizu –esan dio okinak.

Badaki gizona lotsatu egiten dela.

Ordaindu, aho erdiarekin agur moduko bat esan eta jende artean galdu da.

OIHER

Idazmakinaren aurrean eseri eta hatz lodiarekin hasi da:

«Udaberriko egun zoragarri batez».

Eta utzi egin du, anaia puzzlearekin ari delako, eta puzzlea berria delako, amonak oparitua.

– Nik ere jolastu nahi dut –esan dio Ikerri.

Baina anaia gehiago makurtu da piezen gainean, haizete bortitz batetik babestu nahiko balitu bezala. Ez duela nahi. Berak bakarrik jolastu nahi duela.

Orduan amonari zuzendu zaio, erakutsi nahi diola zer idatzi duen:

– Begira zer idatzi dudan, amona; irakurri egingo dizut: «Udaberriko egun zoragarri batez».

– Oso polita, txiki. Baina jarraitu beharko duzu oraindik pixka bat gehiago.

Jarraitu baino lehen txokolatea nahi duela esan dio.

– Iker, nik ere jolastu nahi dut...

Anaiak bakean uzteko bota dio, gustura ari dela puzzlearekin bera bakarrik, eta idazmakinarekin ari baldin bada, jarraitzeko horretan.

Jostailu guztiak lurrean barreiatuta daude.

«Udaberriko egun zoragarri batez zirku fantastikoa herrira iritsi zen».

Beste hatzekin ere sakatzeko esan dio amonak, erosoago egingo zaiola.

Oiherrek badakiela erantzun du. Berak beti badaki.

– Oso polita atera zaizu.

– Gustatzen zaizu, amona?

– Asko, oso ondo idazten duzu.

– Noiz etorriko da ama?

– Oraindik ez, txiki.

Anaiaren galdera entzun duenean, Iker ere amonarengana zuzendu da. Andreak ezin izan du lau begi horiekin, eta altxatu egin da. Liburu bat hartu du apalategitik.

– Etorri, irakurri egingo dizuet.

– Baina noiz etorriko da ama?

– Laster.

Txikiak idazten jarraitzeko keinua egin du, eta anaia jostailuak gordetzeko jaskitxora joan da, kamioiaren bila.

Amonari altzoan gelditu zaio liburua, laugarren orrialdean zabalik. Bera bezala, distraituta.

«Udaberriko egun zoragarri batez zirku fantastikoa herrira iritsi zen». Oiher bufaka hasi da.

– Nahikoa da, txiki –esan dio amonak–. Oso polita da horrela, dagoen bezala. Ia ipuina egin duzu!

Almendra itxurako begiekin begiratu dio Oiherrek, ezpainak heze eta musuak bero. Begiratu egin dio, amonari bihotza desegiten zaion modu horrekin. Begiratu egin dio, andreari barrua eztarrian jartzen zaion modu horrekin.

– Ipuin polita egin duzu. Utzi, nahi baduzu. Gero eskegiko dugu zure ohe ondoan.

– Horrela ez da nahikoa, amona. Hau oso motza da, eta ipuinak askoz luzeagoak izaten dira. Nik gehiago idatzi nahi dut. Oraindik ez dut bukatu.

Eta burua etzan du paper gainean.

Berak amak irakurtzen zizkion ipuin horietako bat idatzi nahiko luke. Eta gero amari oparitu, etxera itzultzen denean.

– Ez duzu ulertzen, amona!

Amonak limoiurezko irri bat itzuli dio.

Oiher anaiarengana hurbildu da, eta galdetu dio ea jolas daitekeen berarekin.

Amonak ipuina hartu eta gorde egin du, ohartu gabe zirku fantastikoko animaliek ihes egin nahi dutela.

LUCIA

Pianoaren aurrean eseri denean, ingurura begiratu du. Beti egiten du. Metalikoa da gaur leiho zabaletik sartzen den argia, neguko egun eguzkitsuan. Lorategiko hortentsia ihartuak ikusten ditu, eta, loreen abarren gainetik, kaleaz bestaldeko etxeetako teilatuak. Hauen gainean hodei urratuak. Ezkerrean apalategia du, konpositore handien biografiez betea. Apalategi erdian bere argazkia, Il Maestrorekin, Paduako musika eskolan. Atzean chaise longue morea, eta, ondoan, lanpara txikia mahaitxo gainean. Eskuineko paretan bi koadro, lore inpresionistekin biak. Besterik ez. Zabala da gela. Etxeko zabalena.

Bakarrik dago, lasai. Ekarri du aulkia, neurria hartu dio, eta oraindik pixka bat gehiago ekarri. Eskuak *dolcemente* pausatu ditu teklatu gainean, koadrozko manta belaunen gainean pausatzen duenean egiten duen moduan. Pausatu ditu Misharen bilo urdinxkaren gainean esku ahurra pausatzen duenean egiten duen moduan.

Eskuak klaskatu ditu, eta lehen notarekin dardara modukoa atera dio pianoari, «esna zaitez!» oihukatu balio bezala. Baina hasierak lasaiak dira Chopinen *Nocturne*-etan.

Ezkerraz ari da Lucia. Ezkerraz bakarrik. Eskuak berotzen ditu horrela, baina hori baino askoz gehiago ere bada. Partitura bitan zatituta, erdibituta, musikaren barrenetan bila dihardu. «Desegituraketa» esaten dio. Gustuko du musika horrela disekzionatzea, notak bakartzea, isolatzea, nota bakoitza tarte txuriez inguraturik ikustea. Atzean dagoena aurkitu nahi du.

– Birtuosismoa, partituraren irakurketa pertsonala egiteko ahaleginik gabe, errepikapen mekaniko eta hotza baino ez da –esaten zion irakasleak–. *Nocturne* bat, Lucia, desberdina izango da, beti, zugan edo nigan. Ezin dugu jo milaka piano-jolek milaka aldiz jo izan duten bezala. Musikak, horrela, ez du merezi. Hori errepikapen hutsa da eta, artistaren ikuspegitik, onartezina.

Luciak ulertu zuen piano-jole bakoitzak bere *Nocturnea* bilatu behar zuela. Eta hori egiten du

ia egunero, pianoaren aurrean esertzen denean. Iruditzen zaio itzultzaileek lan horixe bera egiten dutela esaldi bakoitza behin eta berriro aztertzen eta testu zatiak bakantzen dituztenean, idazlearen adjektiboaren benetako adieraren bila. Arte adituek ere horixe bilatzen dutela, Velazquezen koadroen teknika ulertzeko pintura geruzak ordenagailuarekin aztertzen dituztenean. Horrek ez du itzultzailea idazle egingo, edo arte aditua Velazquez bihurtuko. Baina pentsatzen du berak: idazleak adjektibo horixe zergatik erabili zuen ondo ulertuta, ederragoa izango da itzulpena.

Horregatik hasten da beti ezkerraz. Ahal balu, esku baten notak bakarrik ez, hatz bakar baten doinua ere erauziko luke melodiatik, mandarina bati aleak erauzten zaizkion bezala. Ahalegintzen da batzuetan.

Lortzen duenak ez du zerikusirik laborategiarekin edo mekanikarekin. Ezker esku horretatik paisaia berria iristen zaio, etxeko lorategitik, batbatean, hortentsia landare guztiak desagertu eta lore bakarra gelditu izan balitz bezala.

Irakasleak dohainak zituela esaten zion, artista bat zuela bere baitan.

– Beti egongo da zuk baino hobeto joko duen norbait. Baina zu bakarra zara. Eta zure *Nocturne* hori zurea bakarrik izango da, eta beti izango da berezia. Entzuleari hori ematen badiozu, lortzen baduzu zuk entzuten eta ulertzen duzun bezala berak ere entzun eta ulertzea, orduan berezia izango zara zeu ere.

Ez du inoiz ahaztu.

Fryderyk Chopinek kantatzeko egin zituen *Nocturneak*, eta Luciak soprano baten aho kolpea aurkitu nahi luke tekla bakoitzaren atzean. Horrekin aseko litzateke. Aseko litzateke, baldin eta hori pianoari ateratzea lortuko balu.

– Zure *Nocturnea*, Lucia; ez ahaztu.

Orain, begiak itxi eta lehen aldia balitz bezala jotzen ari da. Inoiz entzun izan ez balu bezala. Hainbeste aldiz jo duen doinu hau ezezaguna balitzaio bezala.

Maite du burua horrela nekatu eta bortxatzea. Ganbara hutsik utzi, memoriatik arrastoak ezabatu eta birjina, biluzik agertzea pianoaren aurrean. Ariketa da ia.

Txikitan etxe parean aparkatzen zuten autoekin egiten zuen. Begiratu egiten zituen –argiak hemen, marka hor, halako koloreak, honelako formak– gogoan artxibatuta edukiko ez balitu bezala. Norbaitek mundu urrun batean hartu, mundu honetara ekarri, atea lehen aldiz bere aurrean zabaldu eta esan izan balio bezala: begira, jendea ibiltzeko asmatutako gailuak! Egiten zuenean, emaitzak beti harritzen zuen. Eta froga egiten zuen gero bere logelarekin, eta bere herriko plazarekin. Ezagunen bisaiekin. Egiten zuen bere buruarekin ere ispiluaren aurrean. Batzuetan polita iruditzen zitzaion, itsusia besteetan. Beti desberdina.

Il Maestrok bere *Nocturnea* aurkitu behar zuela esan zionetik, ariketa horixe bera egiten du Chopinekin. Eta emaitzak beti harritzen du.

Kalkulatzea gustatzen zaio. Kalkulatzea, adibidez, zenbat aldiz parte hartzen duen tekla honek *Nocturne* batean. Gustatzen zaio telefono zenbakiak kontu korronte bateko aurrezkiak balira bezala ikastea. Pentsatzea zenbat belar pitzar dauden etxe aurreko lorategian. Zenbat musu gelditzen zaizkion oraindik.

Bakarrik dago Lucia. Pianoa berea dela sentitzen du halakoetan, berea bakarrik. Orain duela lasaitasuna. Afaria eman eta gero, gonbidatuak atean agurtuta, etxean bakarrik gelditzen den bikoteari gertatzen zaion gisa berean.

Ezin izan zion bere *Nocturnea* inoiz erakutsi. Gau hartan, bere lehen kontzertu handian, soineko beltz luzea arrastatuz pianoaren ondora iritsi zenean, begiradarekin bilatu zuen, lehen lerroko oihal gorriko besaulkien artean, baina ez zuen ikusi. Automatikoki egin zuen eseri, soineko beltza atzerantz zabaldu eta pianoaren gainean esku hezeak jarri.

Atzera begiratu zuen. Ez zuen ikusi.

Jendearen marmarra iritsi zitzaionean, teklatua *piano piano* itxi, jaiki eta eszenatokiko atea zeharkatu zuen, astiro. Antzokia utzi, taxian sartu, hoteleko logelan biluztu eta ohe zabalaren buruko handien azpian ezkutatu zen.

Inoiz ez zuen jakin gau hartan irakaslea antzokian izan zen.

Etxean akademia jarri eta urte batzuetara berria iritsi zitzaion. Gau hartan, Luciak Chopin jo zuen, bere omenez. Jotzen duenean, berarekin pentsatzen du maiz. Argazkia hor dago, beti.

Ezkerraz ari da.

Ezkerra gustatzen zaio. Doinuaren benetako mezua sentitzen du.

Sarritan esaten die goizero etxera etortzen diren ikasleei:

– Chopinen pieza guztiekin gertatzen da. Belarrira iristen den melodia tranpa da benetan, ez-

kerrak erakusten digulako musika. Eskuina kaskarin samarra da. Ezkerra, barnerakoia. Eskuina, neskatila; ezkerra, andrea.

Kontraste hori maite du Luciak. Barrenak astintzen dizkio. Horregatik gogoko du Chopin.

Begiak itxita praktikatzen du, Chopinek berak horrela konposatuko zuela pentsatzen: begiak itxita, eta ezkerraz jostatzen behin eta berriro. Harik eta buruko kutxaren batean gordeta zeukan eta berreskuratu nahian ari zen hori benetan entzun eta pentagraman idazten hasten zen arte. «Horra, doinua», esango zuen orduan. Horra, *Nocturnea.* Eskuinarendako gero asmatuko zuen paper polita. Farfaila.

Nocturne 72 1. jotzen ari da. Chopinek idatzitako azkenetakoa: *Lento con gran espresione*. Hatzetatik gora sentitzen du musika, leporaino nola iristen zaion jarioa.

Ezker hori. «Izan dadila ezkerra maisua; jo dezala eskuinak *ad libitum*». Begiak itxita.

Musikaren zetazko lepoko koloreduna belarriak inguratu eta biriketan sartu zaio, eta bularra tentetu, eta gero tripatik behera zuzenean sexuraino. Mugitu egin da aulkian. Hatzak bula-

rraren arnasaldiarekin batera ari dira. Segitzen diote, zuzendariari segituko lioketen bezala. Hankartetik hankapuntetaraino doinua nola iristen den sumatu du, erreka bat.

Ezker hori.

Horregatik, bakarrik jotzen ditu Chopinen *Nocturneak.* Bakarrik dagoenean baino ez. Orain bezala.

Askotan hunkitu egiten da. Estomaka sentitzen du bular parean, nola estutzen dion eztarria. Hutsa sentitzen du sabelean eta aluan. Hutsik sentitzen da. Eta orduan ezkerrak are sakonago egiten du dantzan tekla beltzen gainean, eta orduan auzokoa geratu egiten da, eta kaleaz bestaldean hortentsiek ikusten uzten ez duten leiho bat zabaltzen da. Eta giroa, paretetako koadroak, sabaiko habeak, sarrailetako zuloak, hortentsien abar arteko zirrikituak, uretarako estoldak, lur azpiko zomorroak, Fryderyk izeneko batek noizbait papereratu zituen nota horiekin betetzen dira. Orain bezala.

Orain eskuina berpizten ari da. Ezkerra, laguntzen. Tekla txuri-beltzetan jarrita dauzka begiak. Berez ez ditu ikusten, baina eskuina zaindu

behar duela iruditzen zaio batzuetan. Txolina balitz bezala. Gutxi fidatzekoa. Eta ezkerrarekin zaintzen du.

Lana benetako konfesioa da, pasio mingarri musikatua: hasiera eta bukaera lasaiak, tartea *in crescendo*. Ñabardurez betetako pintura ozena.

Luciari gustatu egiten zaio pentsatzea Chopinek bera bezalakoendako konposatu zuela.

Luzatu eta luzatu egin du azken nota, benetan gauaren azken unea iritsi izan balitz bezala. Gela bete du piano zaharraren sentimenduak. Eta azken nota hori erabat isildu denean, azken uhina ere desegin denean, partituraren azken orria itxi du, *piano, piano*. Eskuetako indarrak nola akitu zaizkion sumatu du. Sumatu du azken dardara, eta plazera gorputz osoan. Plazer benetakoa. Antzoki zaharrean, okasio handietarako soineko beltzez jantzita, piano baten aurrean zutik, partituraren azken nota jo eta gero, denak txaloka balitu bezala.

HARITZA

Gaur erori da sagarrondoa. Garbi ikusi dut hemendik.

Gau argia izan da, hotza. Ilargia goiz agertu da, hostoen artean sumatu ahal izan dut Lezetxikiko harrobiaren puntan, begiak bakarrik hasieran, buru osoa gero. Muino atzetik ibili da kurioso. Paseoa ohi baino mantsoago, dotoreago egin duela iruditu zait.

Jarraitu diot ezkerreko adarrarekin. Ederra zegoen. Uda mineko ilbete txuri-txuria, biribila. Argitasun horrekin batera ekarri du freskura, eta hostoak bete zaizkit amaraunak zilarrez pintatzen dituzten tintinekin.

Hor goian jarri eta begira gelditu zait.

Sagarrondoarena gertatu baino lehen izan da. Hemendik garbi ikusi dut.

Santa Luziako muinotik argitasun gorria barreiatzen hasi denean –argitasun epela; ez begirik, ez bururik: sua–, orduan gertatu da dena.

Azken astebetean bakarrik, muino ondoko mendilerro osoa zeharkatu du, gero eta haran-

tzago. Iritsiko da Goikopuntaraino, eta udazkenarekin batera hasiko du itzulerako bidea, gero eta beranduago, gero eta apalago, gero eta alferrago, bera ere hoztuta goizero. Eguneroko bizi pozik gabe, izerdiak atzera egingo du zain guztietatik barna, eta enborraren muinean bere baitan bildu eta gorde egingo da. Hor pilatuko da, harik eta jainko biribila berriro berotzen hasiko den arte, harik eta goiz bateko epeltasunak erakutsiko digun arte esnatzeko garaia iritsi dela.

Gaur bazuen egun handien indarra. Goiz ederren sinfonia. Beste muturrean poliki ezkutatu da ilargia. Une batez biak egon dira nire parean. Biak niri begira. Jaun handi sentitu naiz orduan.

Eta garbi ikusi dut. Sagarrondoa makurtzen hasi da, besterik ez.

Errezoan hasieran, sustraiei zeozer esan nahian, ttirriki-ttirriki, lurra musukatzera hurbildu da. Arratsaldean belar gainean zeutzan beso sendo horiek. Erreberentzia izan da. Hor gelditu da, lo antzean, akituta. Abarretatik zintzilik zituen fruituen gorritasuna kontraste ikaragarria begitandu zait arbolaren keinu etsi horrekin.

Eta ni ere nekatu egin naiz belaunikatzearekin, eta gaur akituagoa nagoela uste dut. Berarekin batera, nik ere pitte bat etsitzen nuela sentitu dudalako. Sagarrondoak gogoratu didalako urtero erortzen zaidala abar bat gehiago, gero eta hotzago nagoela udaberriro. Minak zeharkatu nau behetik gora, itxitura berrirako pika bat saihetsean jarri izan balidate bezala. Eta danbatekoak izan dira aizkoraren hotsak. Barru-barruraino inarrosi naute kolpe lehorrek.

Beso batek krak egin dit hor, Santa Luzia aldera.

MARTXEL

Elkartean betikoak geunden: Luis, Iñaki, Josean, Karlos, Andoni, Joselu eta ni. Joseluk egin zuen afaria: esparragoak olibekin, eta saltxitxak tomatearekin. Joselu zikin samarra da afariak prestatzen, baina txandaka egiten dugunez, kexatzeko eskubidea ez dago onartuta.

Afaria bukatuta, kartak eskatu zituzten. Berehala osatu ziren bikoteak. Galtzen zutenak kanpora. Eta ni, sobran. Ez zidala axola esan nion Iñakiri, baina tristatu egin nintzen apur bat. Ez nago etxafueroak botatzeko moduan. Bulegoan aipatu dute Clermont-Ferrandeko lantokian teknikariak behar dituztela, eta ni naiz frantsesa dakien bakarretakoa. Bolada baterako izango omen da. Zer demonio egingo dut nik Clermont-Ferranden?

Ez da hori bakarrik. Adrianaren eta bion artekoa gaizki dago: aspaldi honetan geldi egoteko esaten dit tripan kili-kili egiten diodanean. Koadrila da salbatzen nauena, baina... egia esanda,

ez dakit zer koadrila klase dudan, muserako ordezkoa beti ni.

Iruditzen zait lantokian hamar urterako bidaliko banindute ere inork ez lukeela gehiegi sumatuko, piezak, berriro, erraz egokituko liratekeelako: beste bulegari bat, beste amorante bat, beste ordezko bat. Kito.

Uste dut lema aldaketa behar dudala.

Karlosek atera du gaia:

– Txuma bereizi egin da. Ez zuen inork espero.

– Adriana eta biok ere...

Luisek, enbido txikira. Beti jotzen du txikira.

– Ez gabiltzala oso ondo, alegia.

Andonik, bost gehiago. Luisek, hartzeko bi. Beti egiten du atzera.

– Adriana nirekin gogaituta dagoela uste dut.

Joseanek, bost paretara.

– Beste zerbait baduela esan nahi dik horrek –Karlosek.

– Nork, Joseanek?

– Joder, Martxel, Adrianak! Adrianak beste norbait daukala.

– Bai zera! Adriana beste batekin? Bai zera.

Jokoa ez. Inork ez.

– Noiztik zabiltzate elkarrekin? –Iñakik.

Ez dut asko kalkulatu behar izan.

– Joan den otsailean lau urte.

– Eta?

– ...

– Horixe, beste norbait sartu zaiok begien artean.

Pentsatzen jarrita, aspaldian ez dugu xirririk egin. Ez da hori, badakit, baina esan nahi dut aspaldian ez dugula elkarrekin gauza handirik egin. Esaten diot etxera etortzeko, baina kafea hartu besterik ez dugu egiten. Lagunekin geratu dela, eta alde egiten du, epidemiaren bat hartzeko beldurrez bezala. Elkarrekin irten ere, gero eta gutxiago. Zinemara joaten gara batzuetan, baina asteburuetan elkartzeko proposatzen diodanean, beti dauka planen bat. Ez zaio nire koadrila gustatzen –mutilzahar aspergarriak garela esaten du–, eta nik ez ditut bere lagunak agoantatzen.

Amets gaiztoak ditudala esaten diot, gauean oihuka ia esnatzen naizela, etxea suak hartu duen notizia eman balidate bezala. Berandu iritsiko naizela amesten dudala, berandu ez dakit nora, baino berandu; korrika egin nahi dudala baina ez dudala ezer aurreratzen; eta gero konturatzen naizela biluzik nagoela, eta lotsatu egiten naiz, harik eta atzetik norbaitek harrapatzen nauen arte, eta orduan esnatzen naiz. «Lan gehiegi egiten duzu», ez dit hori besterik esaten.

Andonik hordagoa bota eta galdu. Joseanek hogeita hamar zeukan. Galtzaileak, kanpora.

– Jakin duzue Txumarena? –galdetu diet. Bazekiten, noski.

– Hi ez haiz ezertaz enteratzen!

Patxaran botila ireki du Joseluk.

– Hi eta Adriana, beraz?

– Ez zakiat ba.

– Lasai, motel, etorriko dituk gehiago.

– Oraindik elkarrekin gaudek –nik.

Handira denek paso.

– Sexua duk arazoa, Martxel, sexua.

Joselu astapistola galanta izan da beti. Gauzak nola esan, nola galdetu ez dakien horieta-

koa. Edonor lotsatzeko moduko kakazua. Dena den, ohituta nago; txikitatik gara koadrilakoak.

Karrerako urteak berarekin eman nituen Madrilen. Berak jasan behar izaten zituen loarekin ditudan arazoak. Apur bat erotzen ari nintzela esaten zidan.

– Hi burutik fanda hago.

Haserretu egiten zen, sustoak ematen nizkiolako. Logela berean ginen biok. Ni baino beranduago oheratzen zen beti, eta beti esnatzen nin-duen. Espantuka hasten nintzen, ez nintzela garaiz iritsiko eta maldizioka, galtzak janzten saiatzen nintzen bitartean. Joseluk lasaitzen nindue-nean, galtzak erantzi eta lo zerraldo erortzen nintzen ohe gainean. Biharamunean ez nuen ezer gogoratzen.

– Hi erotu egingo haiz karrera honekin –esaten zidan.

Inbidia zidala uste dut, horren karrera gogorra aurrera ateratzeagatik, berak porroak erre besterik egiten ez zuen bitartean.

Enbido txikira, Luisek.

– Hasierak onak izan ziren –esaten hasi naiz–. Gustura ibili ginela uste dut.

Adrianari beti gustatu izan zaizkio masajeak. Desegin egiten zen hanketan egiten nizkionekin. Larrua jo, esaten dena jo, askotan egin genuen, batez ere hasieran. Baina berak esaten zuen hori ez zela helburua, hori guri gustatzen zitzaigula. Emakumeek nahiago zutela aurreko guztia: «preparatorioa», berak esaten zuen moduan. Adriana neska normala zen guztiz, baina sexologia ikastaro batean izena eman orduko hasi ziren gure arazoak. Ez niola ulertzen esaten zidan. Egia zen. Nik goxo-goxo egin nahi nion, besterik ez. Berehala hasi ziren arazoak: hitzordua egiteko, nire etxera etortzeko..., dena zen problema.

– Aspaldi honetan, egia esanda...

– Hi esperientzia gutxiko gizona haiz –Joseluk.

Pareak bai. Nik ez. Nik ere ez.

– Nik, esperientzia, Adrianarekin... –eta gero, atera zitzaidan–: eta Sebastianekin.

– Norekin?

Esan orduko damutu naiz.

– Apaizgaitegiko arduradunetako batekin.

Joseluri kontrako eztarritik joan zaio patxarana. Andoni aulkitik erori da ia. Besteak ardi ergelak bezala begira gelditu zaizkit.

– Broma izango duk, ezta?

– Ez.

Joseluk «hoa popatik!, niri ez didak sartuko, joder!» edo horrelako zerbait bota du. Haserre altxatu da.

– Ez zen ezer berezirik izan...

– Baina zer diok? Apaiz batekin?

– Hi noiz izan haiz apaizekin?

Garbi zegoen kontuak ez zuela atzera bueltarik. Kontatu beharra nuen.

– Apaizkume izateko zorian izan nintzenean.

Gaur badakit patxarana izan zela, bestela ez nukeela inoiz horrela botako. Baina halaxe izan zen, eta zer egingo zaio. Esan nien ez nagoela garai onenean. Adrianarekin behin baino gehiagotan saiatu naizela hitz egiten, gaia hor dagoelako, baina ez dudala inoiz tarterik aurkitu. Bistan da noizbait atera behar zuela, eta elkartean izan da. Zer egingo zaio.

– Etxeko gaitza izan da. Aitonak, oraindik, errosarioak entzuten ditu egunero, Herri Irratitik

grabatuak, interferentzia eta guzti. Grabazio bera egunero, betiko interferentziak barne.

– Hi, Martxel, ez hasi abarretatik. Apaizaren eta hire artekoak...

– Zuek ez dakizue zer izan den eliza gurean. Anaiak esaten zion amari haiek elizara joaten zirela han kalefakzioa jartzen zutelako. Baina osaba Joserendako erlijioa baino gauza garrantzitsuagorik ez dago mundu honetan, eta amari beroa ematen hasi zitzaion: anaia zaharrena gerran hil zela elizaren alde borrokan, eta niri gustatzen zitzaidala eliza, eta esanekoa nintzela. Amak zer nahi nuen galdetu zidan. Ez zitzaidala inporta erantzun nion. Gustatzen zitzaidan herria utzi eta hiriburuan denboraldia emateko ideia. Ez begiratu horrela. Lehengo apaizgaitegiak ez ziren oraingoak bezalakoak, zuek ere badakizue hori. Eskolan ezagututako lagun batzuk ere bazeuden, eta etxean esaten ziguten ikasketa onak eskaintzen zituztela... Ematen zuen gauza handia zela apaizgaitegira joatea. Egia esanda, nahi nuenaz arrastorik ere ez neukan. Garrantzitsuak iruditu zitzaizkidan «anaia nagusiak etxekoen bideari jarraitu behar dio» eta horrelako esaldiak.

– Egon hintzen, orduan, apaizekin.

– Froga batzuk gainditu behar izan nituen lehenago.

Bitxia izan da. Hitz egiten ari nintzen bitartean, film bat kontatzen ari nintzela ohartu nintzen. Ea azaltzen dudan. Egiatik ez nintzen lerro bakar bat ere aldendu, eta hala ere beste norbaiti gertatutakoa kontatzen ari nintzen sentipena nuen, detaile guztiak hantxe azaltzeko prest, inkontzienteki. Ohartu nintzen nire barruko zulo batek arraso xurgatu zidala dena. Inkontzientzia, hori da hitza. Eta horrela atera nuen dena.

– Amak apaizarekin hitz egin eta aste batzuetara, gogo jardunak egiteko deitu zidaten. Bost bat egun hiriburuko etxe batean, gero apaizgaitegian sartzeko. Sebastian izeneko apaiz batekin egokitu zitzaidan. Niri eta beste hiru laguni. Herri txikietakoak ziren besteak ere, etxe xumeetakoak. Helburua elkar ondo ezagutzea zen, eta hitz egitea, asko hitz egitea. Mahai baten inguruan hasten ginen, halako seriotasun kutsua eman nahian beti ere. Hau da, geure burua aurkeztu behar baldin bagenuen, ez genuen esaten «Martxel naiz, hamalau urte ditut, halakoren semea

naiz eta herri inguruan azeriak harrapatzea gustatzen zait, edo amuarrainei tranpak jartzea». Ez. Laster asko ikasi genuen ez zitzaiela hori gustatzen. «Martxel dut izena, hamalau urte ditut, gune zabalak maite ditut eta bizitza honetan behartsuei laguntzea gustatuko litzaidake», horrelako zerbait esan beharra zegoen. Azkenean denok gauza bera esaten genuen, noski, hori esan behar baitzen. Hala eman genuen lehen eguna. Eta gaua iritsi zenean, arazoa.

Bi logela zeuden guretako. Eta bietako batean, ohe bakarra. Afaria bukatuta, bere logela handia zela hasi zen Sebastian. Berarekin lo egiteko proposatu zidan.

Pentsatuko duzuenez, ezustean hartu ninduen proposamenak. Batez ere, apaizak denen aurrean esan zuelako, naturaltasun osoz. Halako batean ni hartu eta erdi ezkutuan esan izan balit, ez dakit, uste dut azkenean berdin esango nukeela ezetz, akaso ez, ez dakit, baina denen aurrean... Ba horrela esan zuen, berak eta biok elkarrekin lo egitea gau hura igarotzeko modu ba-

karra balitz bezala. Azken batean, bere logela besteak baino askoz handiagoa zen, eta bigarren logela hartan ohe bakarra zegoen.

– Eta zer erantzun hion?

– Beste mutikoetako batek, Ignaciok, lagundu zidan, ni porru eginda nengoen eta. Ohe hartan bi lagunek ondo lo egingo genuela eta moldatuko ginela elkarrekin. Ez genuela bere erosotasuna izorratu nahi. Logela txikiko atea itxi genuenean lasaitua hartu nuen, baina... sekulako negargura etorri zitzaidan. Ignaciorekin logelara abiatu nintzenean Sebastianek bota zidan begirada hemen gordeta daramat oraindik.

– Eta zer esan zuten gainontzeko mutilek?

Ignaciok eta biok hitz egin genuen, ohea prestatzen genuen bitartean, baina erdi txantxetan, garrantzia kendu nahian. Uste dut, ez berak ez nik ez genuela pentsatu ere egin nahi.

Hurrengo egunetan, gogo-jardunean zehar tutoriak izan genituen Sebastianekin. Gizonak bazuen luma, baina hori orain dakit. Orduan berezia iruditu zitzaidan, besterik ez. Taldeetan, denen aurrean, eruditua ematen zuen, eruditua eman nahi zuen behintzat. Bazuen hitz egiteko

era jasoa, hitzak eta adierak etengabe aukeratzen. Musikaz, filosofiaz, teologiaz hitz egiten zuen. Ulertzen ez genituen gauzez. Edertasunaz. Edertasun mistikoaz, barneko edertasunaz. Gorputz zoldarik gabekoen garbitasuna eta horrelako gauzak aipatzen zituen, eta gu denok, noski, ahoa bete hortz uzten gintuen.

Tutorietan, nire txanda iritsi zenean, erdi ahaztua nuen logelaren kontua. Eskaintza haren atzean ezer arrarorik ez zegoela pentsatzera iritsi nintzela uste dut. Hurrengo goizean elkarrekin gosaldu genuenean, «Zer moduz lo egin duzue?», eta «Egun ederra dago», eta horrelakoekin hasi zen Sebastian, lasai eta alai, baina hala eta guztiz Ignacio eta biokin erdi minduta bezala, bezperako proposamenean zalantzaren bat izan genuela antzeman eta horrekin atsekabetuta. Tira, normal joan zen egun hura, eta hurrengoa ere bai. Tutoria etxera joan bezperan izan zen. Besteekin egin bezala, Sebastian eta biok elkarrekin sartu ginen bileretarako erabiltzen zen gelan. Elkarrekin, eta bera nire besotik helduta. Parez pare jarri ginen gela erdian, aulki banatan, tartean mahairik gabe, Sebastianek esan

baitzuen horrela askeago hitz egin ahal izango genuela. Galdetu zidan nire familiaz, haurtzaroaz, adiskideez... Apaiz izateko inolako bokaziorik ba ote nuen jakiteko ziren jardunak, baina horri buruz ez genuen hitzik ere egin. Izugarri luzea iruditu zitzaidan dena. Halako batean, belaunen gainean jarri zizkidan eskuak. Badakizue, lehengo praka motzak, ia beti praka motzak, negua izan ala uda izan... Eta orduan aipatu zidan berak bazituela lagunak elkarri zakila ukitzen ziotenak, baina inolako sexu grinarik gabe, adiskidetasun keinu hutsa zela hura...

– No jodas! Eta?

– Zakila atera zuen.

– Eta?

– Ukitzeko.

– Ostia...!

– Gorri-gorri eginda nengoen. Hamalau urte nituen, homosexualitatea zer zen arrastorik ez... eta halako batean zakil luze eta txuri-txuria hantxe nuen nire aurrean, apaiz baten eskuen artean.

Gelatik hanka egiteko sekulako gogoa nuen. Baina gizon haren presentzia hutsa, sortzen

zuen giroa, katea bezalakoa zen. Eskua hartu zidan eta ukitzera behartu ninduen. Esku hotzak zeuzkan, hildako batenak bezain hotzak. Igurztera behartu ninduen. Begiak itxita neuzkan, negar egiteko puntuan... eta katxarroa praketan sartu zuen atzera. Adiskidetasun keinu bat izan zela errepikatu zidan, gure arteko gauza bat, elkarrenganako konfiantzaren froga. Gela horretatik ez nuela kontua atera behar. Nire gorputz osoa –besoak, bularra, burua– ukitzen eta laztantzen bukatu zuen tutoria, eta besarkada luze baten ondoren –berriz sumatu nuen bere zakila hor, handi, eta orduan okerragoa izan zen–, gure arteko sekretua izango zela.

Gelatik irten ginen. Zeharo aztoratuta nengoen. Dena natural egin zuen, ezkutatu gabe, urduritu gabe, sugandilak ziruditen esku horietan asmo txarrik izango ez balitz bezala, benetako adiskideen artean horrelakoak arruntak balira bezala. Nik ez nekien sexua zer zen, eta bera apaiza zen, ia jainkoa nire etxekoentzat... Aurreiritziz beterik sentiarazi ninduen. Keinu horien esanahi naturala ulertzeko umeegi banintz beza-

la. Gero jakin nuen gainontzeko mutilei ere berdintsu gertatu zitzaiela.

Etxera itzulitakoan amari kontatu nion logelakoa. Eta joan zen herriko apaizarekin hitz egitera. Haren bidez jakin genuen guraso gehiagok agertu zituztela kexuak, eta Sebastian apaizgaitegitik erretiratu zutela. Horrela hoztu zen apaizkume izateko gure familiako joera. Handik aurrera normal jarraitu nituen ikasketak, eskolan.

– Eta Sebastian horren berririk bai?

– Duela gutxi ikusi nuen, San Migeleko erromerian, baselizako atarian. Lagun talde batekin mokadua hartzen ari zen. Ikusi orduko ezagutu nuen. Lepoa egingo nuke berak ere ezagutu ninduela.

Sinistu ezinda utzi nituen denak. Orduan nire betiko obsesioa kontatzeko une ona izan zitekeela pentsatu nuen, horrek lasaitua ekarriko zidala. Baina halako batean ez dakit nork esan zuen:

– Pareekin ari ginen.

Partida interesgarri jarri zen, eta ja ez zegoen giro. Eta nik ez nuen burua kieto.

– Bihar arte.

Inork ez zidan erantzun.

Zanbuluka iritsi nintzen etxera. Adrianari deitzekotan egon nintzen, kili-kili egiten utziko ote zidan. Baina berak ere afaria zuen, aspaldiko lagun batekin.

Eta bart ere amets bera izan dut. Ez nintzela garaiz iristen, korrika egin nahi nuela, ahalik eta bizien, baina ez nintzela nire tokitik mugitzen.

MAITE

Aurrena irribarre moreno horrek harrapatuko zaitu. Irribarre gaztaina kolorekoak. Irribarre distiranta hortz zuriekin. Harrapatuko zaitu. Inguratuko, besoek bezala. Eta ez zaitu utziko.

Ile mataza beltza biltzen dion txori horrekin, popina ematen du.

– Zuk badakizu euliak harrapatzen? –galdetuko dizu.

Eta hurbilduko da leihora, begiratuko dio kameleoi batek euli bati begiratuko liokeen bezala, eta disparatuko du eskua, zast.

Plastikozko edalontziak atsegin ditu, karakolak, txinaurriak eta eltxoak gordetzeko. Esango dizu: Begira!, eta zabalduko du eskua eta erakutsiko dizu kakalardoa, edo armiarma. Batzuetan txaketa txikiaren poltsikoetan gordetzen ditu, baina alde egiten diote denek. Haserretu egiten da, eta gero barre egiten du. Oparitzen dizun irribarre hori eguzkia da.

Hamsterra lepotik lotu nahi du, eta paseatzera atera, erosi berri dioten beroki gorria jantzita. Etxe ondoko parkera eraman eta lagunei erakutsi.

Ezin dela paseatzera atera. Hamsterrak ez dira paseatzen.

– Erosiko didazue txakurra, orduan? Txakur txikia, nik zainduko dut.

Etxean ez dagoela tokirik. Hamsterra horregatik daukala.

Baina berak paseatzera atera nahi du.

Ea hamsterrik baduten galdetzen die gelakideei, ea beraiek ere bi ama dituzten. Eta kontatzen die orduan bi amena: noizbait joango naiz Kolonbiara, eta nire benetako amarekin geratuko naiz betiko. Ez dut berriro utziko.

Galdetzen die euliak harrapatzen badakiten.

– Euliak hamsterrendako? Zu burutik zaude.

Eta zapuztu egiten dute, eta berak xomorroekin jarraitzen du, eta neskek marigizon esaten diote, haserretu egiten da eta beltza esaten diote eta berak zerriak.

– Abuelo, ¿tú le quieres a la amona?

Eta aitonak begiratzen du lurrera eta baratzera joaten da marmarka. Berak segitzen dio eta galderez josten du, harik eta aitonak bakean uzteko esaten dion arte, jolastera alde egiteko.

– Amona...

– Zer...

– Noiz erosiko didazu txakurra?

Amonak esaten dio bazkaria egiten ari dela.

– Irten kalera, Maite.

Edo isiltzeko.

Beretzat bakarrik nahiko lituzke denak. Erdian jarri eta galderak egin.

– Zuk badakizu euliak harrapatzen?

Antzerkia egingo luke gustura, publiko zabalaren aurrean, eta buruan borborka dituen galdera guztiak egingo lituzke. Helduak nola elkartzen diren, esaterako. Zergatik esaten dioten isiltzeko. Ea egia den hamsterrek ez dituztela zomo-

rroak jaten. Nola goxatu daitekeen maite duzun hori. Nork asmatu zituen txoriak.

Edo musika aparailua jarriko luke, eta Cat Stevensen kanta hori kantatuko lieke denei, amari batzuetan kantatzen dion bezala. Bereziki kanta hori kantatzea gustatzen zaio, amak besarkatu egiten duelako gero.

– Maite, zoaz kalera jolastera.

Arratsalde batean txakurkumea eraman zuen gelara, zorriz betea, zoragarri polita. Segitzen ziola. Etxean ez dagoela tokirik, badakiela, baina gelan bai, oso handia dela, berak egingo diola saskia, jolasteko txokoan esaterako, eta berak zainduko duela. Egunero janaria ekarriko diola. Hamsterrendako piloa daukala oraindik. Bestela pasabidean edo komunetan ere egingo liokeela saskia. Zainduko dudala, benetan, andereño.

Gurasoendako eskola oharretan jolasten ikasi behar duela jarri du andereñoak.

Neskek trufa egiten diote, beti zomorroekin ibiltzen delako. Eta berak zerriak deitzen die. Eta zigortu egiten dute. Ezin du patiora atera, eta ezin ditu zomorroak hartu.

Behin, zangoak larrutu zituen bizarra egiteko labanarekin. Belaunetik orkatilaraino, pinporta gorrixkak.

Ileak bazituela, beltz-beltzak, sumatzen zitzaizkiola gona azpian.

– Eskuz kentzen hasi naiz, baina geratzen dira batzuk, beti.

Aitaren labana hartu zuen.

– Beltzegiak dira, argiagoak nahi ditut.

Argiagoa besoa, argiagoak hankak, argiagoa begitartea.

Zangoak larrutu zituen oiloak larrutzen diren bezala. Erauzi nahi zituen, oroitzapenak erauzten diren bezala. Belardietako belar txarrak moztten diren bezala.

Eskua hartzen dizunean gakoa da. Ez uzteko, esaten dizu ixilik.

Izua die txakurrei. Hartzen du panpina, lotu egiten du, eta errieta egiten dio, txakur bati bezala. Gero ferekatu egiten du bere irribarre horrekin, eta ondoren errieta, eta ondoren fereka, eta ondoren hitz goxoak belarrira, eta ondoren jo egiten du errietan.

Izugarri maite ditu txakurrak.

Batzuetan hamsterra hartzen du altzoan eta polita esaten dio. Begi horien atzetik Kolonbiako itsasbazterreko herrixkan jaio zuen amarengana joaten zaio orduan gogoa. Eta pentsatzen du hark bai maite duela. Inoiz itzuliko dela, takoi altuko zapata parea eramango diola, lazo gorri handi batez bildutako zorroan. Bere amak ez baitzuen zapatarik.

– Horregatik utzi ninduen –esango dizu.

EKAITZ

Ez zait euskara gustatzen. Andereñoa beti ari da euskaraz egiteko eta euskaraz egiteko, eta gero haserretzen da nik ez dudalako deus esaten, eta ahopeka hitz egiten dudalako. Niri ez zait euskara gustatzen. Aitak egiten dit batzuetan, baina hitz egiten du arraro eta ez diot ulertzen, eta haserretzen da nik erdaraz erantzuten diodanean, baina ez diot ulertzen! Gainera ez zait gustatzen euskaraz egiten duenean.

Baina gelan egin behar dugu, bestela andereñoa haserretzen da. Nik horregatik ez dut gelan hitz egiten. Gero patioan erdaraz egiten dugu eta futbolean aritzen gara, batez ere Beñat eta ni.

Andereñoari dena ulertzen diot. Jatorra da baina batzuetan haserretzen da. Lehengoan hasi ginen oporrak kontatzen, eta Onintza hasi zen, berak dakielako ongi. Onintzaren gurasoek ere badakite ongi. Gero animatu ziren Mikel, Peru eta Andrea. Eta batzuk erdaraz hasi ziren orduan, eta andereñoa berehala «euskaraz!»,

baina erdaraz hasten ziren beraiei ere ahaztu zaielako pixka bat, niri bezala. Eta horregatik nik ez nuen ezer kontatu nahi. Gustura esango nien ur parkearena eta Menorcakoa, seguru nagoelako haiek ez direla Menorcan egon eta ur parkean ere ez direla egon. Beñat bai, Beñat egon da, berak kontatu zidan, baina nirea handiagoa zen, hori seguru, eskailerak zituelako eta gero bi toki zeudelako jauzi egiteko eta azkenean piszina handi bat eta han zeuden aita eta ama «zer moduz?» galdezka, inbidiaz.

Kontatuko nien gustura baina ez dakit hori guztia esaten. Uste dut. Orain ikasten ari naiz. Horretarako nago eskolan, esaten dit aitak. Bera ere ikasten ari da, eta gero hitz egingo dugula elkarrekin, hori esaten du. Baina niri ez zait gustatzen.

Aitak goxo-goxo egiten dit kontent dagoenean, eta entrenamenduak egiten ditugu baloiarekin egongelan. Baina batzuetan euskaraz hasten da eta orduan ez dugu barre egiten, berak ez dakielako oso ondo eta kosta egiten zaiolako. Horregatik ez zait gustatzen euskaraz egiten didanean.

Horregatik ez zait gustatzen eskola. Lehengoan elkartu ginen Beñat eta Peru eta ni eta esan genuen ez genuela euskaraz egin nahi eta ez genuela gehiago egingo. Hartu genituen aksionmanak eta aritu ginen patioan, izkinan, andereñoek-eta ez entzuteko. Baina gero entzun ziguten eta andereño Pilar haserretu zen eta guk esan genion erabaki genuela euskaraz ez egitea eta esan zigun amari eta aitari esango ziela. Eta aita eta ama haserretu ziren. Batez ere aita. Eta euskaraz hasi zitzaidan, eta gero haserretu egin zen aksionmanarekin ari nintzelako, eta begiratzeko esaten zidan. Baina banekien zer esan behar zuen. Azkenean esan nion berak ere ez zekiela, eta orduan gehiago haserretu zen. Ez zait gustatzen aita haserretzen denean.

Horregatik esan diot amari ez dudala berriro eskolara joan nahi, eta gaur ohean geldituko naizela eta ez naizela joango. Ez diodala andereñoari ulertzen. Ez da egia, andereñoari oso ondo ulertzen diot, baina ez dut joan nahi. Ez dut euskaraz ikasi nahi, aita hitz egiten didalako eta orduan serio jartzen delako. Eta niri gustatzen zait

goxo-goxo egiten didanean. Gauzak belarrira esaten dizkidanean. Erdaraz.

JOSUNE

Esan zizun:

– Guai yakuziko dezut.

Eta hasi zen: «Oillarrarekin astua zan / idiyaren erdiyan / bidian formaturik gatoz / gazterilla guziya...». Esan zizun kopiatzeko, berak kantatuko zizkizula, *yakuziko* zizkizula, eta horrela ez zenituela ahaztuko.

Orrazteko bere modua... Ahizpari esaten zion egiteko motoa. Aulkian esertzen zen, eta ahizpak ile mataza askatzen zion, eta zilar koloreko erreka hori gerriraino iristen zitzaion. Une hura beraiena zen, beraiena bakarrik. Atetik zelatatzen zenituen, elkarrekin marmar etengabe hartan ari ziren bitartean. Gustatzen zitzaizun amiñaren barruko arropa txuria, han eserita, aulkian, ahizpak atzetik motoa egiten zion bitartean. Neskatoa ematen zuen hor, *nesakila*, berak esaten zuen bezala. Nesakila, bere arropa zuriarekin. Arropa zuriak, zureak bezalakoak, Josune. Eta horrek poz handia ematen zizun. Gorputz lirain eta gaztea ezkutatzen zuen kamisoi zuri

hura zeramana amiña zen orain, andre jada zahartua. Baina, zahartuta ere, ume ematen zuen arropa zuri horrekin. Eta horrek negargura ematen zizun, eta ez zenekien zergatik.

Hamaika aldiz ikusita ere, beti harritzen zinen, ttoka egiteko ile hori askatu eta beherainо erortzen zenean. Lamien argazkiak ikusi zenituen liburu batean, eta pentsatu zenuen horixe zirela amiña eta ahizpa: erreka baten ondoan elkarri orrazten orduak ematen zituzten basandereak. Bakarrik zeudela egiten zuten, orduan bakarrik. Erretiratu egiten ziren logelara, beren mundu txikira. Eta mar-mar etengabea. Misterio horrek atxikitzen zintuen ate ondoan.

Gogoan duzu bidaiak kontatzen zituztenean? Kontatu zutenean mendatea automobilarekin lehen aldiz jaitsi zutenekoa? Ez zutela automobila ikusi ere egin nahi.

– Zetakozu automobila? Automobil hartan sartu ta mareatu eta han tubenak eta eztubenak bota behar. Zetakozu automobila? Garbien-garbiena pausoz da diyun jendia; pausoz, pausoz. Aunke pixkat nekatu, gorputza sano diyu.

Hori, gero ikusi zenuen idatzita, kaputxino hark argitaratu zituen paperetan, grabazioetatik ateratako materialarekin. Sandaliekin eta abitu luze marroiarekin etorri zen gizona, grabatu egin nahi zituela bi ahizpak, kanta eta kontu asko zekizkitela entzuna zuela, eta grabatu nahi zituela.

Bi haiek hasieran ezetz, temoso, haiek ez zutela ulertzen zertarako magnetofona, eta ezetz. Baina apaizak ere esan zien garrantzitsua zela. Eta azkenean baietz. Bazkal ondoren etortzen zen etxera, egongelako mahaiaren erdian hantxe jartzen zuen bere matxina, eta hitz egiteko esaten zien.

– Hau aditzen doo? –galdetzen zuen orduan amiñak.

Edo:

– Hasiko naiz esaten?

Eta gizonak baietz.

Erromerietara joaten zirenekoak kontatzen zituzten orduan. Nola joaten ziren oinez tren geltokitik, sekulako urduritasuna eta poza, gauza handia. Milagroa espero zuten hartan –Ezkiogakoa izango zen, ez Josune?–, Madrilgo andre bat hurbildu zitzaiela, eta esan ziela:

– Hara, kotxi hortan derubeion hori naure semia da, eta erraza zazubei, ia milagro iten den Ama Birjinik.

Eta biak errezatzen egon ziren hantxe luze, erdi negarrez.

Zer grazia egiten zien erromeriena kontatzen zutenean. Harako hartan bezala, Arantzazura joan, eta han lo gelditu behar noski, han goiko ganbara batean. Eta gela handian jende asko, batzuk lurrean, lasto txikian, eta beste batzuk oheetan. Haiek koadrila izan, eta lau ohe baino ez. Egin zituzten lau oheekin zortzi ohe, muelleak-eta kenduta.

– Baya ohea fan gindanin barrez lehertu behar, eta gero han atso zahar bat zoon, eta atso harek ia konfesaturik genden, da bayetz. Ba biyer goizon konfesatzeko atza. Ia zengaiti.

Eta izekok esaten zion amiñari: «Hago isilik, galtzelaa sartu behar jegunei». Amiñak gehiago hitz egiten zuelako beti, eta bere barre txiki harekin hasten zelako lotsarik gabe, bera eta ahizpa bakarrik egongo balira bezala.

Nola gogoratzen zuten haien bizimodu makurra:

– Guaiko bizimoduba ezta diruz patzen. Lenoko bizimodu tristia, soruak eta basuak kuidau. Guai berriz etxien bertan semiek iten dei, gutanok, fosforuakin yasain eta suura belaxe piztuik eta len faten gindan aita ta biyok basoa eta auribee dana lantzurdia kuando elurra ein zela. Arboliak itsetsiik lantxurdiakin. Ura da izotza itsetsiik.

Eta nola eskatzen zioten Ama Birjinari: «osasuna eta bakia».

– Eta gutako baindo geiyo umieindako, zeinti gu bizimodua ata dau bai, ta guai umieindako ondasuna ta osasuna ta bakia.

Eta gero aita haserretu zenekoa nola kontatzen zuten, eta nola egiten zuten barre. Amarekin haserretu zela, eta ihes egin zuela:

– Ameriketaa ziyula bai, ta «A Burdeos». Eta geoo telegrami, «membarco», etxaa. Gu danok negaar, enbarkau Ameriketaa in zela-ta. Ilundu zen garaiyan, aita etxea. Ia zer pasatzen zan negar eiteko. Ie ez zen telegrami bieldu enbarkau zela-ta. Baiyez, baiya enbarkau etxea enbarkatzi zala.

Eta Etxarriko harena, gizon batek zeukala andre alferra eta aspertu egin zela berarekin:

– Ekarri zuen Etxarriko feriara eta soinin artu eta yail zen bueltakan feria guziyan garraxiz: anra ederra ta merkee... anra ederra ta merkee... Ta beak: «Esantzak ba ona naizela». «Ona izen baitz etxeako izein yitzan».

Eta pur-pur-pur barre egiten zuten, inork ez zuela erosi esaten zutenean:

– Ezan egosi iyork: txargure iyor ezta izeten.

Eta zu atetik begira, eta bi ahizpen barreak elkarri kontu kontari. Eta kaputxinoa bi andreen jarioari jarraitu ezinean. Eta ahizpek nola kendu behar izaten zuten magnetofoia, zinta bukatuta ere bueltaka jarraitzen zuelako, zinta muturra dantzan.

«Guai yakuziko dazut», esan zizun. Zuk orria eta arkatza hartu, eta apuntatzen hasi zinen. Eta gero irakurtzeko, eta oso ondo irakurtzen zenuela esan zizun.

Hainbeste aldiz pentsatu duzu bi andre horiekin..., eta deseroso beti.

Burutik ezin kendu, ordea, bi andre horiek.

Amiñak behin esan zuen:

– Hil in dia danak. Han ezto eskueldunik, ezta iyorrere.

Eta ahizpak erantzun zion:

– Ahaztu in behar zaizu zurire eskueaz.

– Hilko naiz aurki eta han ahaztuko zait.

– Eztakiu ba ze izen behar deen. Hor hiltzen da kontube.

Eta hantxe itzali zuen kaputxinoak grabatzekoa. Hantxe erabaki zuen bere eginbeharrak bukatu zirela, eta ez zen inoiz gehiago itzuli. Eta ez zen beste inor etorri.

Eta gero amiñak esan zizun:

– Guai yakuziko dezut.

Eta orain aurkitu duzu kaiera, paper zaharren artean, noizbait hasi behar eta dena txukuntzen jarri zarenean. Gogoratu duzu amiña berriro, eta kolpean etorri zaizu dena. Nola orrazten zen. Nola hitz egiten zuen ahizparekin. Eta zabaldu duzu kaiera eta gogora etorri zaizu irri hura, eta soineko beltza, ile zilarrezko erreka bezalakoa. Kamisoi zuri-zuria, hankak ere ezkutatzen zizkiona.

Eta ez duzu amiñak kantatu eta zuk idatzi zenuen hura ulertu.

ELVIRA

Leze ondoan izan naiz gaur. Ez dakit zergatik hurbildu naizen berriro. Hor gelditu naiz, barrura begiratzera ere ausartu gabe.

Ondoko harri batean eseri eta burua seko hustu zait. Gertatu izan zait besteetan ere. Begirada joan zait haize bilduak dantzatzen zuen orbelaren atzean, eta lepoa altxatu behar izan dut korrontea nire inguruan kiribildu denean.

Zulo hori.

Loreak zeuden sarreran. *Ez zaitugu ahaztuko*.

Ez dakit zergatik idazten dudan hau; zergatik ezin dudan harkaitzen arteko tarte estu hori burutik aldendu; zerk erakartzen nauen, zein den tiratzen didan soka.

Eskolan esaten genuen hor oihuak entzun zitezkeela. Ez genekien zergatik kontatzen genuen horrela, zer esan nahi genuen. Pentsatzen dut kostaldekoek gauza bera esan nahiko dutela

maskor barruan itsasoa adi daitekeela esaten dutenean.

Baina guretzat, nolanahi ere, beldurra hori zen, lezea. Leze ondora joan eta oihuak entzutea. Lezea zen gure maskorra, gure mamuen kantua bihurtzen zigun koba. Eta lezetik urrun ere, batzuetan, entzuten genituen sirena ilun eta hezurrezko haien garrasiak. Ez genuen erreferentziarik, ez zegoen itsaso sakon hartan sartu eta han ikusitakoa kontatuko zigun marinelik. Eta horregatik zen, hain zuzen ere, izugarri. Han ezkutatzen zirelako oihuak. Argi entzuten genituelako gure amets gaiztoenetan. Izugarri, gure gogoak oihularia haragizko egin zezakeelako, eta gero desitxuratu. Izugarri, mamu haiek irudika genitzakeelako.

Krabelin gorriak ziren. Pitxarra lurrean zegoen goizean iritsi naizenean. Hurbildu naiz eta txukun jarri ditut. *Ez zaitugu ahaztuko*. *Zure senideak*.

Bake arraroa dago hemen. Nahasteraino arraroa. Batzuetan, isildu egiten da dena, fistua

iristen da zuhaitzen artetik, eta hotzikarak bizkarrezurra inarrosten dit.

Guk ez genuen inoiz ezer sumatu. Ez zuen gutako inork sumatu. Aitonaren arreba baten eskutitz hura baino ez zegoen. Izekok erakutsi zidan, paper zaharrak atontzen ari zela. Horrela hasten zen:

«Angel:

«Zer moduz denak?

«Urte asko joan dira, badakit. Eta badakit, ondo jakin ere, urteek zauri guztiak sendatzen dituztela. Nireak sendatu dira honezkero. Zureak?».

Aitona Angel erresumina zen, ttattar hutsa.

– Ozpiñerreak zulora eramango hau –esaten zion Emeteriok–. Aide beltzez hilko haiz.

Nik ikasi nuen haren muturraldiak antzematen. Erraza zen, ekaitzak ulertuz gero. Heldu, lehertu, baretu.

Ilun jartzen zenean, sukaldetik alde egiteko esaten zigun amak. Ez isiltzeko, edo geldirik egoteko, bera haserretzen zenean esaten zigun bezala; ez: zuzenean eskatzen zigun sukaldetik alde egiteko, eta gora joateko. Eskaileretan gelditzen ginen, eta handik entzuten genuen jostai halako ahotsa, mekaguen rusiaka, infernuko gaizto guztiak dantzan. Entzuten genuen bere inguruan egiten zen isiltasuna, aiur bizi hark nola betetzen zuen dena. Bazuen gaitasun berezia dena betetzeko.

Azken unera arte sasoiko egon zen, burua argi. Hala gertatzen da gehienetan: marraskan gehien dabilena, gogorrena. Laurogei urteak beteak ere, gustatzen zitzaion igande arratsaldeetan Benitorekin eta Emeteriorekin elkartu eta Juanitarenean anis kopa hartzea. Hirurak sarrera pareko mahaian jartzen ziren; hirurak atera begira, hirurak bizkarra paretaren kontra, hirurak kieto.

Aitonak beti esaten zuen:

– Bizkarra babestuta eduki behar da. Hori erakutsi zidan gerrak.

Halakoetan bakarrik entzun nion gerrarena. Halakoetan, edo orduko hartan bezala, ni mezamutil eta Don Manuelen sermoiarekin sutu zenean.

Honela jarraitzen du aitonaren arrebak:

«Baditugu urteak biok, Angel. Bada beste garaiak ahazteko unea. Ez zaizu iruditzen? Ni lasai nago. Familia ederra daukat, eta maitatua sentitzen naiz. Alaba nagusiak amona egin nau, eta horixe da orain nire kezka bakarra. Juan, nire senarra, joan den urtean hil zen. Huts handia utzi zidan, baina nirekin sentitzen dut egunero, lagun, goizetik gauera arte.

«Hainbeste urte joan dira... Pena bakarra daukat, Angel: hara berriro ez itzuli izana».

Aitonak inoiz ez zituen «beste garai haiek» aipatzen. Banekien, izekok esanda, herriko etxe handian egon zela hainbat urtez, gerra bukatu ostean. Iruñetik deitu omen zioten, jendea behar zela dena antolatzeko, eta berak ondo egingo

zuela, herrian errespetua ziotela-eta. Aitonak onartu zuen, noski. Janari banaketa zen premiazkoena, eta ondo antolatu zuen. Jendea animatu zuen hutsik utzitako baratzeak lantzera –«herriko etxe guztietan landatu behar da etxerako», esaten zuen beti–, eta haziak eta abonu zakuak beste herrietan baino errazago lortu zituen, Iruñeko ordezkaritzan zituen harremanei esker. Izekok kontatu zidan, ganadu feria berpizten ahalegindu zenean, gerra bukatu eta gutxira, ez zegoela dirurik animaliak erosteko; baina jendeak, hala ere, eraman egin zituela azokara.

– Txerri txikiak, txahal eskasak, eta ardi zikin batzuk. Gutxi horrek, bere miseria guztiarekin ere, normaltasun itxura ematen zion herriari. Eta horregatik zioten errespetu handia.

Ez nuen inoiz irribarretsu ikusi. Bazuen amorru isila, barruak jaten zizkion zerbait. Eta Don Manuel gorrotoari buruz hasi zen hartan, aitona keinuka ikusi nuen berehala, elizako hirugarren lerroko aulkian deseroso.

Egun seinalaturen bat zen herrian. Hala uste dut. Apaizak jendearen arteko lubakiez jardun zuen. Asko harritu ninduen zerbait esan zuen, ez dut ahaztu: «Hildakoei bakea eman behar zaie». Ez nuen ulertu, baina ez nuen ahaztu.

Don Manuelek ideia bera bizpahiru aldiz errepikatu zuenean lehertu zen aitona, zerua lehertzen den bezala. Bankuaren aurreko heldulekuan ukabilkada ozena emanda jaiki zen. Elizan ezohiko isiltasuna egin zen. Aitonaren urratsak garbi-garbi entzuten ziren. Eta marmarrez elizako atea zabaldu zuenean, barrura sartu zen argia halako lasaitu bat izan zen. Itxi zenean gelditu zen bakea bezalaxe. Aitonarekin batera handik hanka egin zuten mamu batzuek. Atea itxi zen haien atzean.

Gaurko egunetik begiratuta, ni bakarrik asaldatu nintzela iruditzen zait. Askok espero zutela. Don Manuelek bilatu egin zuela aitona, probokatu nahi izan zuela, probokatu behar zuelako. Kolkoa beteta zegoelako.

Kontu haiek gaur interpretatzen ditut horrela, noski. Orduan kaskurro mukizua baino ez nintzen.

Don Manuelek galdetu zuen:

– Eliza utzi nahi duen beste norbait badago?

Ez zen inor jaiki, eta sermoia bukatutzat eman zuen hantxe.

– Gerrako apaiz gehiegi dago –esan zuen aitonak etxean.

Eskaileratik entzun nion, belarriak eskuekin tapatuta.

Ez zituen inoiz «beste garai haiek» aipatu.

Ez aspaldian, herrian burrun-burrun ibili zen gerrako kontuak gogoratzeko sukarra. Atera ziren lekukotasunak, istorioak, esamesak, baina aitonaren izenik ez zen ageri.

Izekok lasaitua hartu zuen.

Plaza inguruan nenbilenean agurtzera hurbiltzen nintzen. Banekien aitonari gustatzen zitzaiola. Beti berdin aurkitzen nituen hirurak. Aterantz begira, anis kopa erdi hustuak mahaian, eta bizkarra ondo babestuta.

Esku bakar batekin biltzen zituzten zigarroak. Egiten zuten bitartean, ezker begiarekin elkar zaintzen zutela ematen zuen. Zigarroa ezpainetan zintzilik eskatzen zuten anisa. Eta aterantz begira jartzen ziren.

– Hi Angel, txikito hau ona duk, beti agurtzera.

Aitonak txanponen bat ateratzen zuen, eta buruan kosk amultsua ematen zidan. Beti gauza bera. Beti hirurak.

«Badakizu behin baino gehiagotan itzuli nahi izan genuela, baina norbaiten babesa behar genuen, norbaiten hitza.

«Argentinan ez genuen bizitza erraza izan, hasieran. Dena hutsetik hasi behar izan genuen. Orain badakit merezi izan zuela.

«Gu amoratuta geunden, Angel, gazteak ginen. Zure hitzak, oraindik, eta ia hogeita hamar urte joan dira, hemen ditut, atzo esandakoak balira bezala. Gorri hori ez zela zure etxean sartuko. Ez dakizu ze min egin zenigun, Angel. Zu zinen guri laguntza emateko bakarra. Zu

zinen ezaguna, zu zinen Angel, zu zinen itzuli ahal izateko gure esperantza».

Gau batean, ohi baino anis kopa gehiago edango zuen aitonak. Negua zen. Izozten ari zuen. Izotzaren gainean izotza. Izekok ohetik aditu zituen hotsak. Mesanotxeko argia piztu eta adi egon zen tarte batez. Animaliaren bat izango zela pentsatzen hasia zen bigarrenez entzun zituenean. Baina aiene modukoak iruditu zitzaizkion orduan. Jantzi, ezkaratzera jaitsi, atea zabaldu eta, hantxe, etxe parean luze zabal aurkitu zuen aitona, zuri zikinean arrasto gorria uzten zuela.

– Ez nengoen edanda, Luisa –esan zion ohean, alabak arropa ia gogortua kentzen zion bitartean.

«Ez nengoen edanda», behin eta berriro. Izekok besoak eta hankak fuerte igurtzi behar izan zizkion, eta aurpegi osoa garbitu benda batekin, zauria sudurrean zuela ikusi zuen arte. Hautsita izango zuela pentsatu zuen, baina medikua aipa-

tu ere ez! larritu zen aitona. Garbitzeko zauria, eta kito.

– Ez da ezer. Nire ordua ere iritsi da. Hori besterik ez da.

Hori uste izan zuen: estropezu egin eta berehala ohartu zelako ez zuela indarrik ez besoetan ez hanketan. Ez zuela indarrik, ezta zutik jartzeko ere.

– Eta bakarrik, Luisa, bakarrik. Malfin egingo nuela sinetsita nengoen, Luisa, malfin bertan eta bakarrik, harri eginik.

Kale ertzean norbait entzun zuela, hori ere esan zion aitonak. Laguntza eskatu ziola. Eta entzun zuela:

– Izorra hadi, Txarro.

Baina ez zekiela garbi. Irudiz entzungo ote zuen.

Urtero elkartzen dira leze ondoan. Meza egiten dute bertan, loreak jartzen dituzte zulo sarreran, eta gero bazkaria. Urtero.

Aitona hil ondoko bederatziurrenean izan genuen lehen berria. Artean eskutitza irakurri gabeak ginen, bazenik ere ez genekien.

Izeko mezatik heldu zen, beti bezala bakarrik, mantelina beltzez babestuta. Etxetik gertu, norbait atzetik iritsi eta aldamenean jarri zitzaion. Kaleak estuak dira gurean, eta argi gutxi izaten da. Izeko, hala kontatu zidan, harritu zen diosalari inork erantzun ez zionean. Kale erdiko bonbilla horixka baten azpitik pasatzean ezagutu zuen Ferminaren aurpegia. Elkarrekin egin zuten etxerako falta zen bidea.

Gure etxe ondoko plazan bizi zen Fermina, ibai gaineko ezpondan, herri bukaeran berez, Iruñetik iristen zen trena entzuten zen lehen tokian. Han, lau etxek osatutako plazatxoan, hantxe ziren haurtzaroarekin lotzen nituen irudiak.

Ferminak gazterik galdu zuen aita, eta amari laguntzen hasi behar izan zuen jostundegian, eskola utzita. Izekori entzunda nekien hori, nik beti esnea partitzen ezagutu nuelako, marmita bana eskuetan. Neska bekozkoa zen, guretzat ukitu ilun samarra zuena. Marimutiko esaten genion.

Eta begi basatiak erakusten zizkigun, dir-dir indartsua.

Luisak ez zuen elizan aspaldian ikusi.

Etxe biek egiten zuten izkinara iritsita, besotik oratu zion Ferminak, tinko:

– Kristau zintzoena da hildakoei bakea ematea, bai, baina nork emango dit niri bakea?

Halaxe bota zion izekori. Ez zuen berehalakoan ulertu, hantxe, kale erdian. Dardaraka zegoen.

– Ez genuen aita gehiago ikusi. Bizitza hondatu zitzaigun. Eta orain esan dezaket: ez dinat inoiz barkatuko. Orain esan dinat. Honek ez zidan bakerik emango, bazakinat. Baina zuek ere ez duzue lo lasai egingo.

Aitona hil eta gero aurkitu zuen eskutitza izekok.

«Urte asko joan dira. Ez dut kontu eske aritzeko gogorik. Guk biok urteak ditugu, eta nahiko nuke elkartu. Hori gustatuko litzaidake. Juan jada ez dago, eta badakit zuretzat errazago izango dela. Elkartu besterik ez, Angel. Etxea bisita-

tu eta zure familia ezagutu. Esan, zer moduz zaude? Bilobarik baduzu?

«Aurten egin nahiko nuke. Asko atzeratzen bada, ez dakit gero kemenik izango dudan horren bidaia luzea egiteko.

«Zure oniritzia behar dut. Ez zure baimena, zure oniritzia besterik ez.

«Besarkada bat.

«Zure erantzunaren zain.

Elvira, zure arreba

Rosario, 1977ko urtarrilaren 10ean»

Ez zegoen besterik. Eskutitz hura baino ez. Aitonak dena erre zuen. Ez oharrik, ez afixarik, ez oroigarririk.

Leze ondoan izan naiz gaur. Loreak erorita zeuden, eta ondo paratu ditut. Eta bidean hartutako alkakatsak utzi ditut igandean ekarri zituztenen aldamenean. Hurbildu naiz zulora, eta ikara hartu dut berriro. Eseri naiz harri baten gainean, eta hor egon naiz luze. Hoztu egin naiz. Badirudi negua joka dugula.

Bidetik etxera bueltan gogoratu naiz aitonarekin, nola esaten zuen: «Bizkarra beti babestuta eduki behar da, horixe erakutsi zidan gerrak».

Ez nekien Argentinan izeko bat genuela.

KOTTE

Argazki bitxia iruditu zitzaidan. Ez zen bereziki ona, baina bazuen zerbait, dudarik gabe. Sei gazte ikurrin baten atzean, klandestinitatea aurpegian. Txikia zen ikurrina, biren artean eutsia. Denak kamerari begira, ukabila itxita eta besoa jasota. Inguruan, aspaldiko argazkietan beti agertzen diren lekukoak, harrituta edo.

Argazkiak ez zuen aparteko baliorik Euskal Herriko banderari buruz prestatzen ari nintzen lanerako. Aurpegi ezagunik ez zegoen gazteen artean, ez behintzat lehen begiratuan. Eta tokia ere ez zegoen antzematerik. Argazkiak sei haiek hartzen zituen, eta ondoan haur bat, eta atzean jendea. Plaza batean zeudela zirudien, etxeak antzematen zirelako gazteen buruen artean, baina izan zitekeen etorbide bat ere. Uda izango zen: gazteak mankustan zeuden denak.

Argazki oinak ez zuen asko argitzen: «La reivindicación de la bandera vasca se ha extendido por toda Euskadi». 77ko udaberrian ikurrinaren legalizazioaren alde egin ziren manifestazioei

buruz *Punto y Hora* aldizkariak egindako erreportaia batean ageri zen.

Atentzio fokua ez zegoen, ez niretzat behintzat, bandera harro erakusten zuten gazteengan, edo atzetik beldur aurpegiaz begiratzen zuten besteengan. Ezta ikurrinean ere.

Argazki txiki hark ez zuen inolako ikurrik edo markarik, miatu nituen beste hainbat argazkitan gertatzen zen bezala. Ez zen argazki historikoa, finean, ez zegoelako inon kokatzerik, ez zuelako informazio gehigarririk ematen: gazte batzuk ikurrinarekin, Euskadin, 77an. Besterik ez. Ez zen kalitatez ona. Ez zuen balio, esaterako, erakusketa baterako. Oso xumea zen. Bertara agertu, gazteei ikurrina erakusteko eskatu eta, taka, argazkia atera duen argazkilari baten lekukotasun beste asko bezalakoa, horra lana.

Baina bitxia iruditu zitzaidana, hortik aurrera lan franko eman eta, egia aitortu behar badut, obsesio bihurtu zitzaidana, taldearen aldameneko haurra izan zen. Aparte samar zegoen arren, adi-adi begiratzen zion objektiboari. Hamabi bat urte izango zituen. Besoak gurutzatuta zituen, ekintza subertsibo hartan parte hartzen ari ez

zela garbi erakutsi nahiko balu bezala. Begiradan haserre puntu bat ere antzematen zitzaion. Ez, ez, haserrea ez da hitza. Serio zegoen, serio demonio. Muturtuta, bai, baina ez minduta edo erretxinduta. Seriotasuna azpimarratu nahi bide zuen. Seriotasun larria erakusten baitzuen, beso horiek bular parean fuerte. Bere adinerako, begirada harrigarria zuen.

Badira argazki famatuak haurren edo gazteen espresio hori oso ondo islatzen dutenak. Argazkilariak horren ohikoak ez ziren garaian, ezezagun baten kameraren aurrean jartzea gertakizuna izango zen, eta gazteek, batez ere hirikoek, heldutasun itxura eman nahi izaten zuten. Gauza handia zen argazki bakoitza, ezezaguna eta berria izateagatik hain zuzen ere handia, eta batzuei irudituko zitzaien horixe zela denok dugun unea, aldizkarietan ikusten zituzten argazkietan jende handia ateratzen zelako beti. Sekulakoa irudituko zitzaien.

Aldeak alde, hau izan zitekeen argazki horietako bat. Hau izan zitekeen, zergatik ez, Cartier Bressonen mutikoetako bat; esaterako, neskatilen begirada irriberen aurrean ardo botilak etxe-

ra eramateko prestatzen ari dena, bat-batean argazkilariak berak gizon egina.

Eta horrek bai, bazuen interesik nire egitasmorako, haurraren planta sendo izan nahi horrek oso kontraste polita egiten zuelako ezker besoa altxatuta zuten gazteen irudiarekin. Ematen zuen haurra ohartua zela unearen garrantziaz –bandera debekatua eta jazarria, Franco hil eta gero, edozein herritako edozein kaletan–, eta argazkia bera garrantzitsua iruditzen zitzaiola. Harrotasun ia komiko hori, ikurrina bera agertzeagatik zela. Argazkilaria bertan egoteagatik. Argazkia ateratzeagatik. Lekuko garrantzitsua izan nahi zuen mukizuak, eta ohartuta berari ez zitzaiola ikurrinarena bururatu, ohartuta berak, nolabait azaltzearren, egoera hartan ez zuela lan historikorik; ohartuta –hala interpretatu nahi nuen– argazkilariak ez ziola berari inola ere erreparatuko; are gehiago: ohartuta argazki honetatik kanpo geldi zitekeela, orduan hamar urte gehiago zituela erabakiko zuen hantxe. Hantxe erabakiko zuen argazki honetan atera behar zuela.

Argazki bitxia zen, edonola begiratuta ere.

Egia esanda, aspertzen ari nintzen enkarguz hartutako lan horrekin. Pentsatzen hasia nintzen, Gorkari akaso azkarregi esan niola baietz, eguneroko monotoniatik ateratzen ziren lan guztiei baietz esateko ohitura txarrak, beste behin, damua ekarriko zidala, eta luzatzen hasia zela dena.

– Erraza duk: hogeita bost urte ikurrina baimendu zenetik –esan zidan artikulua proposatuz–. Borrokak eta halakoak ahaztu, fuera. Ez zaizkiguk interesatzen, askotan aipatu izan dituk. Ikurrinak gure artean duen onarpenaz, egin ezak horri buruz. Mundu guztiak naturaltasunez ikusten duela, ez dagoela arazorik. Batzuentzat liskarrerako aitzakia dela? Guri bost. Guk egungo egoeraren adierazgarri dela azaldu nahi diagu: normaltasuna. Ahaztu batallitak. Ikurra, hori duk: Euskadiko ikurra. Egun demontreren gizarte honetan eztabaidatzen ez den ia gauza bakarra.

Gorka azkarra da. Badaki noiz deitu behar didan. Ematen du egoera larrien detektagailua duela. Badaki, gainera, nola konbentzitu behar nauen berak nahi duenerako. «Euskadiko iku-

rra», hori duk hori ergelkeria. Estatutuaren edo Ertzaintzaren inguruan bere aldizkarian argitaratu ditudan artikuluak bezain ergelak gutxienez. Eta garbi gera bedi, ez nago bereziki harro. Itzulpenekin hasiz geroztik, egin ditudan lan mertzenarioenak izango dira seguru asko, baina ondo ordainduta zeuden. Eta Gorka, gainera, gustatzen zait. Baditu potroak ateratzen ari den aldizkari hori ateratzeko. Lankide ohiek barre egiten diote, galdu dituela printzipioak. Baina berak, behintzat, ez du bere burua egunero zuritu behar, konpromisoa edo zintzotasuna edo objektibotasuna hitzetik hortzera. Gorkak erosotasuna aukeratu du: onartu du bere porrota, ez du mundua aldatuko, kito. Ikasi du horrekin bizitzen. Gustatzen zait, bai, gustatzen zait bere dekadentzia hori. Eta nirekin beti ondo portatu da. Artikulua eskatu zidanean, ez nuen zalantzarik izan.

Trabatuta nengoen, ordea. Benetan trabatuta. Ia hilabete, eta gaiari kosk non egin oraindik ez nekiela.

Artxibo batzuk miatuak nituen, baina ez nekien ondo zer kontatu behar nuen. Bandera aldarrikatu behar nuen? EAJko nostalgikoei gorazarre

egin? Ikurrina haizatzen ausartu zirenen egolatria puntu hori paperean jaso? Ikurrinaren onarpenaz idatzi, ofizialtasunaren aldeko borroka kontatu gabe? Euskadiko ikurra... Banderen aurka idazteko gogoa pizten ari zitzaidan, gero eta gehiago. Gorka, nola ez, haserretu egiten zitzaidan horrelakorik aipatzen nion bakoitzean. Ea lana utzi nahi nuen esaten zidan.

– Beizak –esaten zidan betaurrekoen atzetik–, hik baino gusturago egingo luketen dozena erdi lagunen kurrikulumak zauzkaat hemen, tiraderan. Utzi nahi baduk, esadak. Baina esadak, ostia!

Nik, ezetz:

– Lasai, badiat ideia on bat. Azken elkarrizketa falta zaidak, hori besterik ez. Erdi zirriborratuta zaukaat eta... Hi lasai, hire artikulua izango duk.

Gezurra galanta, baina diru hori behar nuen. Pilarrekin utzi ondoren tristurak jota, malenkoniatsu ikusten ninduela esaten zidan bizilagunak. Igogailuan esaten zidan hori, erosketetako poltsekin laguntzen nionean. Kalera gehiago irten beharko nukeela. Esaten zidan «hi eta biok,

txikito» esanez bezala. Nik ez nion erantzuten. Baina arrazoi zuela uste dut. Oporretara joan nahi dut, joan behar dut, eta itzulpenek –nireek– ez dute askorako ematen. Artikuluaren diruarekin egun batzuk hartu eta hiribururen bateko pentsio merke batean emango dut astebetea. Berlinen edo Londresen. Londresko gaua itzela dela entzuna dut, espezial. Bidaia merkeak ikusiak ditut jada, Miarritzetik.

Ataka horretan nengoen, gutxieneko entusiasmoa inon ere aurkitu ezinean, baina lana inola ere utzi nahi ez, argazkia aldizkarian ikusi nuenean. Eta aitortu behar dut jakinmina piztu zidala berehala: orduantxe ikusi nuen, benetan ikusi, erreportaia. Erretratuan agertzen zirenak aurkituz gero, nor ziren kontatuz gero, zer egiten zuten han egun hartan, zergatik zeuden ikurrinaren inguruan, zer egin zuten hurrengo egunetan, hurrengo urteetan, zer egiten zuten orain, hogeita bost urte pasata..., hori guztia kontatuz gero, adierazpen handiekin eta egunkarietako titularretatik ateratako informazioarekin egindakoa baino lan askoz ere hurbilagoa eta interesgarriagoa egin nezakeela otu zitzaidan berehala, ar-

gazki txiki baten bidez, argazki handia egin nezakeela.

Ez nekien Gorkari gustatuko zitzaion. Abiapuntua historizista zen guztiz. Arrastorik ez normaltasunaz, edo egungo egoeraren gainean berak nahi zuen ikuspegi enlatatuaz. Ez nekien, gainera, azkenean zer aterako zen, eta hori jakin gabe abiatzea arriskutsua zen, batez ere Gorkarengatik. Gerta zitekeelako sumindu eta erreportaia zuzenean zakarrontzira bota eta sekula santan berriro ez deitzea. Nolanahi ere, gazte haien peskizan hasi nintzen. Joder, ni ere interesatuta nengoen. Hori berria zen. Utikan Gorka eta beldur guztiak.

Urte hartako aldizkariaren artxibo osoa miatu nuen larunbat goiz batez. Lan asko egin ziren ikurrinaren aldarrikapenaren inguruan, baina ez nuen bilatzen ari nintzenaren arrastoan jarriko ninduen ezer aurkitu. Diktadorearen garaiak hurbilegi izango ziren oraindik askoren gogoan, eta argazkilariek, batez ere horrelako argitalpenetan, ez zituzten lanak sinatzen. Artikuluak ere goitizenekin edo inizialekin bakarrik agertzen ziren askotan.

Eskerrik eta, lagun baten bitartez, garai hartan aldizkarian lan egiten zuen erredaktore baten telefonoa lortu nuen. Telefonotik mesfidati antzeman banuen ere, hitzordua egin genuen Donostiako kafetegi batean. Ezin izan nuen aurrean jarri zidan pareta gainditu. Tok-tok egin nuen, besterik ez. Kaixo, nor zara, ba ez, ez zait interesatzen, agur.

Aldizkariarena duela asko izan zela, ja ez zuela zerikusirik kazetaritzarekin –«mundu horrekin», hitz horiexek erabili zituen–, ahaztuta zituela orduko kontuak, «ondo ahaztuak». Ea zehazki zer nahi nuen. Aldizkariaren fotokopia erakutsi nion. Argazkia ez zitzaion ezaguna egiten, baina, noski, aldizkariak erreportaia bat baino gehiago atera zituen ikurrinaren legalizazioaren aldeko borrokari buruz, eta normala zela. Argazkilariaren izena nahi nuela, nik. Kolaboratzaileekin lan egiten zutela, berak, eta asko eta asko, gehienak, ez zirela profesionalak; zaila izango zela. Ea beste norbaitek laguntza eman ziezadakeen. Ez zekiela.

Ezer gutxi, beraz. Gogoa ere gutxi. Desenkusatzen hasi zen. Garai oso zailak izan zirela,

bonba jarri zietela behin erredakzioan, deklaratzera joan behar izan zutela hainbat artikulurengatik, berak depresioak izan zituela, eta arazo asko gero lana aurkitzeko, eta kazetaritza hitza ez zuela entzun ere egin nahi. Gero berreskuratu zuen gorbata, eta tente jarri zen. Aurrezki kutxara itzuli behar zuela, lana zuela eta hamaiketakoaren tartea ahitu zitzaiola. «Animo» esan zidan, hori bai, bostekoa ematean.

Gorkarengana jo nuen. Antzeman nion destaina, nork eta nik, bat-batean, zerekin eta argazki batekin halako interesa agertzeagatik –kazetaritza «lakonikoa» egiten nuela esaten zidan–, baina aldizkariarentzat inoiz lan egin zuen argazkilari baten izena eman zidan azkenean. Bizkortzeko lanarekin, ea noizko bukatu behar nuen. Baietz nik, laster. Gauzak ondo ari zirela.

– Ostia, urteurrena joango zaiguk!

– Lasai, orain badiat erreportaia buruan...

– Egidak laburpena, folio batean sikiera!

– Hi egon lasai. Zerbait dudanean igorriko diat.

Nerbioetatik zegoen. Aldizkariak bost urte egingo ditu ikurrinaren legeztapenaren hogeita bosgarren urteurrenarekin batera, eta Gorkak zerbait berezia egin nahi du. Aurreko batean, Avenidako denda dotore horietako batean atorrak erosten aurkitu nuenean, aldizkariak loa galarazten ziola aitortu zidan.

– Hiri loa galarazi? –barre egin nion.

– Bromarik ez. Hik ez dakik zer den hau.

– Zer den, zer?

Benetan kezkatuta zegoen. Ez nuela ulertzen, esan nion. Lan pagotxa, soldata hobea, eta hainbat artikulu jaso, eta argazki batzuk kudeatu, hori besterik ez zela. Berak bazekien, nik bezala, zer zen erredakzio batean lan egitea. Baina kezkatuta zegoen. Kontatu zidan askotan entzuna nion negar bera. Aldizkariarena proposatu ziotenean babes handia izango zuen produktua izango zela esan ziotela, tokia egiten kosta egingo zitzaiola baina babes handia izango zuela, eta ez zela diru arazorik izango.

– Diru arazorik ez diagu, baina hemen, ni, bakarrik nagok –esan zidan, ehun euroko bi atorra visarekin ordaindu bitartean.

Artikulu asko idatzita bidaltzen zizkiotela, bere horretan sartzeko; ez zuela gidoitik ateratzeko inolako aukerarik; aldizkariak ez zuela inolako presentziarik; erabiltzen ari ote ziren. Baina, oraingoan, urteurrenarekin, zerbait itxurosoa egin nahi zuen, ale bikoitza atera. Nire artikulua erreportaia zentrala izango zen. Eta ikusten zuen: *Ikurrina, batzen gaituena*.

Zerbait geratzen zitzaion, beraz, kazetari sen hartatik.

Esan nion:

– Gorka, zenbaki ederra aterako duk.

Biok bagenekien ez zela egia, baina bioi bost. Gorka konbentzitu behar nuen buruan nuen artikulua argitaratzeko, hori zen dena. Sinetsarazi behar nion ikurrinaz hitz egiteko modu bakarra hogeita bost urte horietako eboluzioa kontatzea zela, ikurrinaren higadura bera kontatu behar zela. Lortzen banuen, gustura biok. Eta ni, gainera, Londresera joango nintzen.

Argazkilariari hots egin nion. Telefonoz azaldu zidanez, *Punto y Hora*n garai hartan bizpahiru argazkilarirekin lan egiten zuten, baina argitaratzen ziren argazki asko herrietako jendeak egi-

nak ziren. Karreteak bidaltzen zituzten erredakziora, anonimoki askotan. Zaila izango zela baina begiratuko genuela.

Norbait gazteagoa espero nuen, eta hala esan nion tabernan agertu zenean. Barre egin zuen. Egia esanda, argazkilaria baino, tabernako langilea ematen zuen. Ni ohituta nengoen oraingo gazteekin, piercing, argazki makina digitala eta ordenagailu portatilaren belaunaldiarekin, eta bizardun potoloa agertu zitzaidan, orduko argazkietan asko ateratzen ziren bizardun horietako bat. Errebelatzeko laborategian irudikatu nuen une batez, bonbilla gorriaren azpian eta bata txuria jantzita, zigarro beltza ezpainetan, eta negatiboak ilearendako haizagailu batekin lehortzen, kazetariak oihuka ziharduen bitartean, zain zegoelako motorrarekin, aldizkariaren frogak moldiztegira eramateko.

Atsegina zirudien, eta interesa agertu zidan, edo hala iruditu zitzaidan. Egiten ari nintzen lana azaldu ondoren erakutsi nion argazkia. Bai, gogoratzen zuen. Gogoratuko ez zuen ba. Berea zen, Hondarribiko Arma Plazan ateratakoa, arratsalde luze batean. Esan zidanez, aldean erama-

ten zuen beti argazki makina, eta mahai gainean genuen irudia San Pedro eta Santiago kaleen arteko kalekantoi batean guardia zibilek Zabala gaztea tiroz hil eta hurrengo egunetan atera zuen.

Zabalarena gogoratzen nuen. Kolpatzen ari ziren beste gazte bat defenditzera atera eta bi tiro egin zizkioten bertatik bertara. Gogoratzen nuen hilketak samin handia eragin zuela Hondarribian, eta tentsio handia zegoela bazter guztietan. Hainbat artista, tartean Oteiza bera, gaztea erori zen tokian, hantxe, mural handia egiteko pronto agertu ziren, poema batekin. Hurrengo egunerako manifestazio handia antolatu zen herrian. Argazkilariak azaldu zidan aldizkaritik deitu ziotela, hain zuzen ere Hondarribiara joateko. Gogoan zuen argazkia. Gustatu zitzaion, ez zekien zergatik, eta berak aukeratu zuen erreportaia apaintzeko. Orduan ohitura baitzen, ez zuten bere izena jarri.

– Eta horko haurra?

Lotsa eman zidan galdetzeak. Banekien ezingo zuela inola ere identifikatu, ez zuela, seguru

asko, bertan agertzen zen inor ezagutuko; baina, azken finean, horretarako geunden han.

– Bitxia da, bai.

Eta gero:

– Argazkia atera nuenean akaso ez nuen ikusi ere egingo. Oso jarrera xelebrea du hor, bai. Argazkia beragatik aukeratuko nuen seguru asko. Nor den arrastorik ere ez daukat.

Ezer gehiago ezin atera, eta elkar agurtu genuen. Telefonoa eskatu zidan hala ere, begiratu behar zituela berriro bere argazki zaharrak. Zerbait aurkitzen bazuen hots egingo zidala.

Azalpenek nire jakinmina areagotu baino ez zuten egin. Txikitan maiz joaten ginen Hondarribiara, arratsalde pasa egitera. Garai hartan aitak Irunen lan egiten zuen, aduanan, eta San Pedro kaleko tabernetan elkartzen zen lagunekin. Hondartzatik bueltan, izozkia hartuta, oso arratsalde luzeak eman genituen bertan.

Ikurrinaren garaia ere gogoan nuen. Manifestazio ugari ikusi genituen espaloitik, oihu eta kantu berri haiekin harrituta. Harrituta manifestazioak nola osatzen ziren. Baten batek poltsotik-edo ikurrin txikia atera eta jendea elkartzen

hasten zen. Segituan entzuten ziren leloak eta lemak. Terrazetan eserita zeuden asko altxatu egiten ziren segizioa aurretik igarotzen zenean, eta batu egiten ziren batzuk. Biraoak eta juramentuak ere entzuten ziren noizean behin. Gehienetan, barre burlatiak. Manifestariek erantzun egiten zieten, noski. Oihu egiten zieten, altxatzeko eta haiek ere manifestazioarekin bat egiteko. Berezia zen.

Une larri batzuk bizi izan genituen. Eusko Gudariak entzuten hastea gerra oihua zen gehienetan. Berehala agertzen ziren guardia zibilak, non ezkutatzen ziren ez genekiela, eta harriak eta barrikadak eta ke-poteak eta pilotak, dena ezerezetik sortzen zela ematen zuen. Antzerki handia zela iruditzen zitzaigun guri, beti gidoi berdina zuen ikuskizun kitzikagarria. Terrazetako mahai guztiak zilipurdika hasten ziren hantxe, eta aulkiak gazte eta ez hain gazte zenbaiten esku haserretuetan jarri eta airean gora abiatzen ziren, armatuta zeudenen aurka. Azkar asko ikasi genuen Santiagoko kale atzeko eskaileren gorako bidea. Han amaitzen zen antzerkia. Autoa hartu, eta Irunera.

Hondarribirako gure bisitak bakandu egin ziren, batez ere Zabalarena gertatu eta gero. Gurasoak, hurrengo egunean, arreba helduenarekin joan ziren manifestaziora. Korrika gogotik egin behar izan zuten hirurek, Amute eta Mendeluko baratzen artetik etxeraino, eta hori emozio handiegia izan zen denentzat. Hura ez zen antzerkia.

Beraz, nire adinekoa-edo zen argazkiko haurra. Egia esanda, ezaguna ere egiten zitzaidan apur bat. Ez zitzaion aurpegia oso ondo antzematen, ile luzeak estali egiten zion-eta. Garaikoa, oso garaiko itxura zuen.

Argazkilariak hots egin zidan elkarrekin egon eta bi egunetara. Ezagutzen zuen ikurrinarekin zegoenetako bat.

– Martin du izena. Martin Isasti.

Ez zen zaila izango berarekin harremanetan jartzea. Argazkilariak adierazi zidanez, ezaguna zen Irunen eta Hondarribian, Herri Batasunako zinegotzia izan baitzen hainbat urtez.

Ezagutu beharko nuen bada. Ez zeuden hainbeste.

Martin delakoarengatik galdetu eta berehala ohartu nintzen. Horixe ezaguna! Irun erdian zuen tabernaren pareta aldeko banku korrido luzean inon baino ordu gehiago eman genituen institutu garaian. Xirula izena du tabernak –oraindik irekita dago–, eta Martin Isasti, guretzat, Kotte zen.

Kotte. Anaia helduarena egin zuen garai batean, ez bakarrik gurekin, baina hurbiltzen zitzaizkion gaztetxo guztiekin. Aberria maitatu behar zela, euskal musika entzun, eta *Egin* irakurri, hori ateratzen genuen garbi, beti. Gero beste gorri bat jartzen zigun edalontzian. Tripa ondo estututa bakarrik irensten genuen gorri merke hura, behin eta berriro.

Peio eta Pantxoa, Urko, Errobi, Niko Etxart, Akelarre.

Kotte eta lankidea eraman zituzten egunean taberna itxita aurkitzea izan zen gogorrena. Tabernako atean Kotteren argazkia aurkitzea, ikurrin batekin. Beraz eta Kotte beste bat bazen: tabernako barraz bestaldean zeuden Pitu, Tximista eta Endika bezalakoa. Heroia. Baina, hara: Kotteren argazkia koloretan zen. Besteenak marraz-

kiak ziren, halako siluetak, oroitzapenetan oinarritutako erretratuak. Ez oso errealak. Kotterena kolorez. Kotte ezagutzen nuen. Benetakoa zen.

Antena errepikagailuetan hainbat bonba jarri zituen komando bateko kidea zela esan zuten telebistan.

Arratsalde hartako manifestazioaren ondotik eskuak belztuta iritsi nintzen etxera, izerditan eta arduratuta. Ixkin egin ahal izan nion Poliziari. Iñigok eta Enriquek ez zuten hainbesteko zortea izan. Gaua komisaldegian eman eta hurrengo goizean atera zituzten gurasoek, adingabeak zirelako. Susto ederra eta zartako batzuk ondo hartuta. Bataio politikoa.

Bolada intentsoa izan zen. Edozein protestaldi bukatu orduko bagenuen zeregina: kotxea irauli, edo ohol zaharrak lanetatik hartu eta errepide erdian gurutzatu, edo kristalen bat edo beste hautsi. Poliziaren zain beti. Agertzen zirenean harriak bota eta ezkutatzera. Jokoa zen ia. Inguruko kaleetako atarietan sartu eta ateak zabaltzen zizkiguten, eta egongeletara gonbidatzen gintuzten. Ardoa ematen ziguten, kanpoan

pilotakadak entzuten ziren bitartean. Giroa lasaitzen zenean, «animo» esaten ziguten, eta ospa.

Harro zeuden. Harro gure jokoarekin. Eta gu harro, haiek harro egoteagatik. Haiengatik egiten genuen ia. Gazteen kemenaz harro sentitzen ziren haiengatik.

Mobilizazio gogor batzuen ondorioz, egun batean garbi ikusi nuen: iraultza bazetorren, zirt edo zart egiteko eguna. Segur naiz orduan norbaitek ekintzaren bat egiteko aukera aurrean jarri izan balit, serio pentsatuko nukeela. Orain ere berdin gertatzen da: orain galdetzen dute ea norekin hitz egin behar den. Gero lagunartean ospatzen dute, eta koadrilakoak agurtzen dituzte ordu txikietan. «Mendira goaz!» esaten dute. Orduan bezala.

Kotterekin eta orduko guztiekin harremana erabat galdu nuen kanpora ikastera joan nintzenean.

Itzuli izan naiz batzuetan Xirula tabernara. Kottek betiko sudur gorria du, eta betiko musika dauka tabernan. Ja ez daude gazteak banku korridoan. Ez dago ezta banku korridorik ere. Irunera itzultzen naizenero gertatzen zaidan bezala,

tabernetan mozkorrak baino ez ditut ikusten. Mozkor itxurosoak, hori bai, mozkorrak ez balira bezalakoak. Primeran disimulatzen duten horietakoak.

Atzo izan naiz tabernan.

Bi ardozale barran, beste inor ez. Ardoa eskatu dut nik ere, baina beltza, berezia. Hotza atera dit. Basoerdia bukatzen ari nintzela, kazetaria naizela eta lan bat prestatzen dihardudala azaldu diot Kotteri. Argazkia erakutsi diot. Ez dakit zer pentsatu duen, baina ez dio ilusio handirik egin. Ea zertarako nahi dudan. Ez da nitaz gogoratzen, jakina. Lanarena errepikatu diot, harako aldizkariarentzat erreportaia prestatzen ari naizela, eta gustatzen zaidala ondoko txikitoaren espresioa, argazkiak baduela indarra. Kottek begiratu egin dit, ulertu gabe. Goitik behera aztertu nau, eta ez dit erantzun. Iruditu zait ertzain kamuflatua naizela pentsatzen ari dela.

– Zein aldizkaritarako esan duk?

Orduantxe pentsatu dut: «alferrik». Ez du aldizkaria ezagutzen, baina euskarazkoa du izena, eta bale.

– Noiz kendu zenuten banku korridoa?

Edalontziak txukuntzen ari zen. Harritu egin dela uste dut.

– Hi ez haiz aspaldi hona etorri, ezta?

Beste ardo bat eskatu diot. Jendea tabernan sartzen ari da, eta aspaldiko bi ezagun ikusi ditut. Normalean aupa-iepi agurtzen diren horietakoak. Baina gaur hurbildu egin naiz. Zermoduz-non-habil-ondo-segi-gero-arte. Gehiegi ere ez, baina lortu dut: Kotte ohartu da.

Esan diot arratsaldean izango ote duen une bat nirekin egoteko, eta pentsatu eta gero, eta nik berriro eskatu eta gero esan dit:

– Bostak aldera etor hadi.

Arratsaldean hutsik zen taberna. Oroitzen nuen guztia kontatu diot, bera lasaitzeko, baina lasaitu nahi nuela berak ez antzemateko moduan. Gezurren bat edo beste ere sartu dut, handitzeko. Halakoren eta halakoren koadrilakoa nintzela, non esertzen ginen gu, askotan eskatu nizkiola diskoak grabatzeko, eta Polizia oldartzen zenean, maiz ezkutatu ginela barruan. Horretaz gogoratzen da.

Argazkia berriro ikusten uzteko eskatu dit. Baietz, bera dela ikurrinarekin dagoen mozolo

horietako bat. Zabala kale erdian akabatu eta hurrengo egunetako manifestazio horietako baten ondoren atera zutela. Bai, gogoratzen da.

– Gainontzekoak?

– Arrastorik ez –erantzun du burlati.

Erreportaiarena berriro kontatzeko eskatu dit. Orain interesatuta dago. Keler bat ireki eta botilatik edan du.

Zer egin nahi dudan kontatu diot berriro.

– Begira, hor nirekin batera ikurrinari heltzen diona Txonpi duk. Hik ere ezagutuko duk.

Nik baietz.

– Oraindik barruan zagok. Ez zian zigorraren murrizketarik onartu.

Berak, orduan, bai.

Isildu egin da. Gero:

– Juanma duk nire ezkerrean dagoena. Udalarentzat lan egiten dik, bulegoetan. Urteak ez dudala ikusten. Txonpiren ondoan dagoena hori ere koadrilakoa zuan: Fermin. Kanpoan lan egiten dik. Hori ere aspaldian ikusi gabe. Beste biak Txonpiren lagunak zituan, Oreretakoak, uste diat. Horien erreferentziarik ez, zero.

Tabernako paretan hiru presoren argazkiak daude zintzilik. Argazki zaharrak denak. Ez diot galdetu Txonpi nor den.

Pantxoa eta Peioren kanta berriak airean. Ikurrin txikia dago paretan iltzatuta. Urte batzuk baditu, bistan da. Galdetu diot ea onartuko lukeen argazki bat ikurrin horrekin. Kosta egin zaio erantzutea. Bere begietan nir-nirra ikusi dudanean, ausartu naiz.

– Azken finean, hi haiz ikurrinari hel diezaiokeen bakarra.

Beste bi Keler ireki ditu. Baietz. Hurbildu zait poliki-poliki, eta:

– Zortekoa haiz, motel. Horixe bera duk argazkiko ikurrina.

Bingo.

– Bihar orduan?

– Goiz etorri.

Eguerdian, taberna zabaldu berria zela, han nintzen. Atzo bezala, barran bi bezero. Kottek jaitsi du ikurrina eta non jarri behar duen galdetu dit. Berak presoen argazkiekin nahi duela. Ondo, nik. Barra barruan jarri da, baina besoa jasota eta ukabila estutua atera nahi duela. Eta

begira dagoen zurruteroari esan dio, berarekin batera barra barrura sartu eta ikurrinari eusteko. Sartu dira biak, irri artean animatuta. Kameraren objektiboak hirurak hartu ditu. Hirurak, eta bi presoren argazkiak. Bestea kanpoan gelditzen dela ohartarazi diot Kotteri. Berdin diola, berak barra barruan nahi duela argazkia. Botatzeko azkar. Pena dela hiru presoak ez ateratzea, barraren kanpo aldean jarriko balira gehiago zabal nezakeela objektiboa... Ezetz. Haserre esan didala uste dut. Botatzeko azkar. Klik.

Bezeroetako batek galdetu dit nor den kanpoan geratu dena.

– Ezkerrekoa.

Kottek entzun digu, baina ez du ezer esan.

Ikurrina zintzilikatzen utzi dut tabernan.

Gorkari deitu diot.

– Noiz amaitzen zaidak artikulua entregatzeko epea?